Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Berriatua



Aurkibidea

Udalerria: Berriatua

Sarrera



Lea-Artibai eskualdeko udalerria. Bitan zatituta dago: batetik, erribera, elizatearen erdigunean dagoen aldea, eta bestetik mendi aldea, Miloi, Asterrika eta Magdalena auzoak dauden ingurua. Mendebaleko euskara edo bizkaiera da bertako euskalkia. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

Argazkia: Lander Eizagirre

- **Biztanleak**: 1.176
- **Euskaldunak**: %85,28

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **32**
- Zintak: **38**
- Pasarteak: **157**
- Transkribatutakoak: **29**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **113**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Berritxu bihotzean, eten bako taupada
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskararen historia soziala Elgoibarren
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Markina-Xemeingo hezkuntza publikoa (1844-2025): hazitik lorera
- Ondarroako ahotsak

Hizlariak



Jon Ansotegi Gorostola (1982)



Itziar Aramaio Elordi (1979)

Maria Aramaio Hormaetxea (1985)

Markina-Xemeingoa. Bekobenta Eskolako ikaslea 3 urtetik DBH amaitu zuen arte. Berritxun bizi zen elkarrizketa egin zitzaion garaian.

Jazinto Arriola Arriola (1935)



Berriatuko Goimendi auzoan jaio zen, Ondarroako mugan (elizaz Ondarroa da). 1967. urtean, 31 urte zituela, Ameriketara joan zen lanera eta 20 urte eman zituen joan-etorriak egiten. Denboraldi horretan, hainbat lanbide eta herri ezagutu zituen: New York, Wyoming, Oregon... eraikuntzan, meatzetan, artzain... Ameriketarako joan-etorrietan, Natxituako Olagorta baserriko Victoria Alzolarekin ezkondu zen eta Olagortan bizi dira harrezkero. Ehiztaria ere bada, eta gai horren gaineko istorioak ere aipatu ditu.

Angel Arriola Muniozguren *Astobitza* (1924)



Milloi auzoko Astobitza baserrian jaio zen 1924. urtean. 42 urtetara arte bi izan zen bertan, Markina-Xemeinera joan arte. Aita bertakoa zuen eta ama Etxebarriko Gandiagakoa. 7 anaiatatik gazteena izan zen; hala ere, baserria handia zenez, umetatik hasi zen beharrean. Gerra Zibilera arte joan zen Berriatuko eskolara, aita hil arte. Sasoi hartan, udaletxea Oletan (Amoroto) egon zen eta bere aita alkate errepublikazalea zen; behin harako bidean zihoala abioi batek hil zuen. Etxean bertan hiru batailoitako 300 bat miliziano izan zituzten eta estraperloan ere aritu ziren baserriko jeneroagaz. Ikazkin lanetan ere aritutakoa da, etxerako zein saltzeko egiten baitzuten. Ganadu tratuan, baso lanetan eta Esperantza lantegian aritu zen beharrean.

Lorentza Barinagarrementeria

Berriatukoa. 1990ean egin zitzaion grabazioa. Grabazioan Maria Barinagarrementeriak eta Begoña Silloziandagak ere hitz egiten dute.

Ramon Basterretxea Elgoibar (1931)



Berriatuako Elizburu auzoko Basterretxea baserrian jaio zen 1931. urtean eta hantxe bizi izan da beti. Baserriko lanak egin izan ditu bizi guztian zehar eta oso ondo azaltzen ditu bai lanbidearen gorabeherak, baita Elizburu auzoko kontuak ere.

Lidia Bustindui Garate *Sekretarixuanekua*
(1925-2022)



Berriatuan jaio 1925ean eta 11 urterekin Ermura joan zen. Aita, Domingo, bertako udaletxeko idazkaria izan zen 1936tik aurrera, eta hortik datorkio bere gaitzizena. Probalekuan bizi zen eta Plazara joaten zen eskolara. Gerratea amaitu zenean, goizetan aitari laguntzen zion Bizkaitik Gipuzkoara pasatzeko baimenak egiten, baimen bakoitzeko erreala kobratuz. Sallabenten josten ikasi zuen eta sasoi batean kanporako ere josten zuen. Katekista legez ibilitakoa da. Saenz de Cabezón botika-saltzailearen seme Jose Luisekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketa egin zitzaionean Donostian bizi zen arren, sarri-sarri joaten zen Ermura eta bere gaztetako ipuin eta bizipenak mihiaren puntan izaten zituen beti. Hizkera: ermuarrera.

Felisa Eizagirre Eizagirre (1929-2016)

Milloi auzoko Eizmendi baserrikoa.

Migel Elordi Egurrola (1916-2018)



Berriatuako Gasturu baserrian jaio zen 1916. urtean eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere berriatuarrak zituen; bost neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Berriatuako herri eskolara joan zen 13-14 urtera arte; eta, harrezkero, baserriko beharretan ibili zen. Gerratean, Olatzeko (Mutriku, Gipuzkoa) baserri batean egon zen. Mutrikuar eta gipuzkoarrekin joan zen soldadu Jakako frontera, "Regimiento 19, segunda compañia, quinto batallón"an. Jakatik Bartzelona aldera joan zen, handik gutxira etxera bueltatzeko. Anaia bat gerra sasoian hil zitzaion: etxe atzean ira-metak egiten zebilela, "Abuelo" hegazkinak botatako bonba batek jo zuen. Beraien aita herriko zinegotzia izan zen gerra aurretik; eta, gerraostean, 33 urtez, alkatea izan zen. Larruskaingo (Markina-Xemein) emaztea izan zuen.



Joseba Erregi Laka (1934)

Tomas Gandiaga Sierra (1912-2013)



Berriatuako Elizburu auzoan jaio zen 1912. urtean, hamar anai-arrebako sendian laugarrena. Ume zela joan zen Berriatuko kalera lanera eta bi urtez eskolara joateko aukera ere izan zuen. Hemezortzi urterekin itzuli zen baserrira eta hantxe bizi izan da harrezkero ganaduarekin, ardiekin eta baserriko gainerako lanak eginez.

Kepa Garate Kalzakorta (1984)

Lehenengo Berriatuko eskolan ikasi zuen, eta DBH egin zuen Bekobenta eskolan.

Damiana Gojenola Maguregi (1918-2015)



"Milloi" (Merelludi) auzoko Urresti baserrian jaio zen 1918. urtean. Bederatzi urte besterik ez zituela artzain joan zen beste baserri batera lanera. Hemezortzi urte bete arte etxetik kanpo egon zen lanean (umezain, baserrietan, josten, Berriatuan, Eibarren...). Ezkondu ondoren Eibarrera joan zen bizitzera denboraldi batez, eta hantxe jaio ziren bere bi semeak; baina handik urte gutxira Berriatura itzuli zen sendi guztia, Torremotxu baserrira (Plazakola auzoan), eta baserriko lanekin jarraitu zuten, batez ere sagarrak saltzen.

Fernanda Kalzakorta Alegria (1923-2023)



1923. urtean sortu zen Mellerudi "Milloi" auzoko Zeleta baserrian zortzi neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Lakagoikoakoa. Gaztetan sei-zortzi urtez amaren jaiotetxean egon zen bertako beharrak egiten eta ardizain bezala. Gerora, Eibarko taberna batean eta Algortako osaba-izeko batzuen etxean egon zen lanean. Berriatua bertako herriguneko Kasparrenekoa baserrira ezkondu zen eta harrezkero bertan bizi izan da, baserriko beharrak eta zortzi seme-alaba aurrera eramanez.

Inazio Kalzakorta Alegria (1929)



1929. urtean sortu zen Mellerudi "Milloi" auzoko Zeleta baserrian zortzi neba-arrebako familia batean, bera zazpigarrena izan zen. Aita bertakoa zuen eta ama Lakagoikoakoa. 1956. urtean Lekeitiora ezkondu eta Arropainen zabaldu zuen aroztegia. Lekeitioko euskal ezkontza antolatzen aritzen da urtez urte, garai bateko "ezteguak" irudikatuz egiten den ekitaldia. 11 urte zituela bere arrebaren ezkontzaren lekuko izan ze; gerora ere, antzinako beste euskal eztegu batzuk ikusi zituen. Horiek zelan ospatzen ziren azaldu zigun grabazio honetan.

Juan Kalzakorta Alegria (1927)



1927. urtean sortu zen Mellerudi "Milloi" auzoko Zeleta baserrian zortzi neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Lakagoikoakoa.

Patxi Kalzakorta Azpiri (1928-2016)



Asterrika auzoko Allukiz baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Lekeitiokoa. Igeltseritzan aritu zen lanean. Ondarroako Elisa Uriarterekin ezkondu zen eta Ondarroara joan ziren bizitzera.



Roberto Lekue Arakistain (1948)



Mikel Angel Lertxundi Argoitia (1951)



Saioa Lopez Eizagirre (1976)

Maria Felisa Madariaga Gisasola (1929-2016)

Berriatuko "Etxepintxu" jauregi-etxekoa (jatorriz Elexalde Goikoa izenekoa). Milagros ahizparekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n, gerrako bizipenak jasotzeko.

Milagros Madariaga Gisasola

Berriatuko "Etxepintxu" jauregi-etxekoa (jatorriz Elexalde Goikoa izenekoa). Maria Felisa ahizparekin batera egin zioten elkarrizketa Ahaztuen Oroimena taldekoek 2011n, gerrako bizipenak jasotzeko.

Jose Mari Mugartegi Aulestiarte (1922)



Xemeingo (gaur egun Markina-Xemein) Urberuaga auzoko Ateun Beko baserrian jaio zen 1922an. Aita bertakoa zuen eta ama Markinako Txatxangoa. Beraien etxea udaletxez Markina-Xemein da, baina elizaz Berriatua. 7 urtegaz joan zen auzoko eskolara eta bertan ibili zen 14 urtera arte. Gerra ostean ez zen eskolara bueltatu. Beti aritu izan da baserriko beharretan. Auzo bereko emaztea du. 1989ko abenduan izan ziren sute ikaragarrien ondorioz, etxea eta inguruko lurrak eta basoak erre zitzaizkien, ezinezkoa izan zen ezer salbatzea minutu gutxitan kiskali baitzen etxea. Bi urte beranduago Ateun Beko etxe berrira itzuli ziren. Bere anaiarekin batera egin zaizkio elkarrizketak.

Ricardo Mugartegi Aulestiarte (1927-2010)



Xemeingo (gaur egun Markina-Xemein) Urberuaga auzoko Ateun Beko baserrian jaio zen 1927an. Aita bertakoa zuen eta ama Markinako Txatxangoa. Beraien etxea udaletxez Markina-Xemein da, baina elizaz Berriatua. Umetan 14 urtera arte auzoko eskolan ibili zen; gerrak iraun zuen bitartean, urte betez ez zuten eskolatik izan. 22 urtegaz ezkondu eta gero, Berriatura joan zen bizitzera. Baserriko lanetan eta tailerrean aritu izan zen beharrean. 30 urtez zerrategian aritu zen; azken 18ak kamioi-gidari legez. 1989ko abenduan izan ziren sute ikaragarrien ondorioz, jaiotetxea eta inguruko lurrak eta basoak erre zitzaizkien, ezinezkoa izan zen ezer salbatzea minutu gutxitan kiskali baitzen etxea. Bere anaiarekin batera egin zitzaizkion elkarrizketak.

Marcelina Odriozola Kerejeta (1928-2010)



Berriatuko Zubialde baserrian jaio zen 1928. urtean. Ama ere bertakoa zuen eta aita Etxebarri baserrikoa (hori ere Berriatuan). Bizi guztia Zubialde baserrian igaro du baserriko lanetan. Garai bateko bizimodua, baserriko lana eta Ondarroako merkatuan egindako salmentak azaltzen ditu.

Karmele Osa Arrieta (1999)

6. mailara arte Berriatuko eskolan egin zuen, eta DBH egitera etorri zen Bekobentara.




Mikel Plaza Etxebarria (1974)



Ramon Plaza Urizarbarrena (1947)

Angel Ugarteburu Meabebasterretxea (1942)



Berriatuko Milloi auzoko Ikaranagusi baserrian jaioa. Aitak hiru ume izan zituen lehenengo emaztearekin eta, alargundu zenean, haren ahizparekin ezkondu eta beste hamalau izan zituen, nahiz eta denak ez ziren aurrera atera. Milloiko auzo-eskolan ibili zen umetan Angel. 12 urterekin, abadeak proposatuta, Derioko seminariora joan zen. 1960ko hamarkadako giro nahasia ikusita, irakaskuntza aldera jotzea pentsatu zuen eta Erromara joan zen lizentziatura ateratzera. Handik itzulita, 1972an, Eibarko ikastolan hasi zen lanean. Sei urteren ostean Elgoibarko ikastolara pasa zen, ordurako Elgoibarren bizi zen eta. Urte batzuk geroago Elgoibarko institutura joan zen eta bertan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Ikastolaren hasierako urteetan umeentzat euskarazko materiala sortzen ibili zen, ahozko tradizioko ipuinak oinarri hartuta, eta Kirikiñoren `Abarrak´ ipuin-bildumak euskara batuan jarri eta egokitu ere egin zituen. Elgoibarko Izarraren baitan sortu zen Elgoibarko bertso-eskolaren sortzailea izan zen eta bera izan zen irakaslea hasierako urteetan.

Hilario Ugarteburu Meabebasterretxea (1924-2013)



Berriatuko Milloi auzoko Ikaranagusi baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Bolibarkoa. Aitak bi seme izan zituen lehen emaztearekin eta, alargundu ostean, haren ahizpagaz ezkondu eta beste 12 seme-alaba izan zituen, Hilario horietatik bigarrena. 1936ko gerra oso ondo gogoratzen du, 7 hilabetez frontea egon baitzen Berriatuan. 1945ean soldadutzatik ihes egin zuen eta Gurs-eko kontzentrazio esparruan egon zen hilabete batzutan. Handik, erbestean zegoen Jaurlaritzak paperak eginda, erresidentzia eta lanerako paperak eskuratu zituen eta Behe Nafarroan, Gamarten, egon zen baserriko lanetan, morroi modura. 19 urte egin zituen erbestean: 21 urtegaz joan eta 40gaz etorri. Santa Agedako koplaria izan zen 10 urtegaz hasita; koplak asmatzen zituen etxe bakoitzean. Bat-batean aritu izan zen bertsotan Berriatuan eta baita Iparraldean ere, hainbat bertsolari ezagunekin. Horrez gain, ikazgintzaz, sagardogintzaz... ere aritu zen berbetan. 43 urte zituela ezkondu zen, eta handik gutxira Amorotoko Goiogane baserrira joan ziren bizitzera. Goioganen egin zuen bizimodua ordudanik, alaba eta biloben artean.

Mari Carmen Zabala Burundarena (1945)



Guraso biak Berritxukoak zituen. Solabarrieta baserrian bizi ziren. Zortzi senidetan gazteena, 15 urterekin Lekeition egon zen harategi batean lanean, hiru urtean. Marina tabernan ere ibili zen eta baita baserriko lanetan ere. Donibane Lohizunera joan zen hotel batean lana egitera eta ondoren Pora. 1970ean Iñaki Zabalarekin ezkondu zen eta 1971n Ameriketara joan ziren bizitzera (Iñakik ordurako hiru urte eginak zituen bertan). Senarra enkargatua zen arrantxoan sukaldari ibili zen Carmen eta ondoren baita beste arrantxo batean ere. Alaba bat eta seme bat izan zituzten eta Hagermanen bizi izan ziren; jatetxe batean sukaldari, etxeak garbitzen eta emakume bat zaintzen ibili zen, besteak beste, Carmen. Senarra erretiratu zenean, ardoa egiteko mahatsa ipini zuten. Ondoren, Mexikon etxe bat erosi, eta bost hilabeterako bertara joaten ibili ziren hainbat urtean. Elkarrizketatu genituenean Geromen bizi ziren.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Lanbideak

1.1. Bederatzi urterekin auzoko baserri batera lanera

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/002
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Plaza Txopitea, Ander
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Zortzi urtera arte egon zen baserrian. Auzoan eskola egin zenean, auzoko baserri batera joan zen neskame; baserriko lanak egin eta ardiak zaintzen zituen bertan, baina eskolara ere joaten zen. Bi urte egin zituen eskolan eta 11 urterekin Berriatuko beste baserri batera joan zen umezain.

Transkripzioa
- Eta orduan zure gazte denpora guztia basarrixan ein zenduan.
- Ez, ni e... e... eon nitzen baserrixen zortzi urte arte. Ta... aurretik eskolaik ez euen barriadan eta barriadako eskolako inauguraziñoien, e...gu han umik e...hamar bueltan, ta andra bat han ha auzokue Ikaango Bekoerrotaku. E... gure amari esotzan [esan zotsan]: “e... nik honako neskatxu bat hartuko neuke ba”. Ta “eskolara?” ta... “ba eskolara bialduko dot”, baiña eskolara neuken etxetik baiño doble bide gehixa handik, “bai eskolara bialduko dot”, gero gero e... ardixek e... zainddu te engoitxu te”. Ta neukezan zortzi urte ordun hurrungo astin ein binitxun [bihar nitxun]beratzi urte. Ta ezetzik be gure amak ez toan esan ta, hurrungo astin bederatzi urte ein binitxun [bihar nitxun] ta jun nitzen haraxe baserrire.
- Biharrera ya? Lanera?
- Bai, eskolara bialtzen nindduan baña ardixek e... zaindu, erretirau ta baitta bedarra ebaten be erakutsisten bertan [...].
- Hori bederatzi urtetxorekin. Bederatzi urtekin.
- Bai beratzi urteaz. Gero han eiñ ñintxun urte bi, urte bi han eiñ ñintxun, ta gero beste andra batek, e... Berritxuko Iberrekuk, umi jaixo biakola [bihar jakola] ta, umizaintzailli nahi bela ta, gure amari esotzan [esan zotsan] ia bialduko leuken. Ta urte bi eiñ eskolan, ta urten eskolatik eta jun nitzen Berritxuko Iberra, umezaiña, hamaika urteaz. Da maistrik eseusten [esan eusten]: ”hauxe da peni emotostesune” , e... lau e... tablak e... pasata neuenin problemeta, “sekulako ederto zebizen eskolan da on esaixosu amari ez zoizela”. Baiña hori zelan esan? Hori zelan esan? Jun, jun nitzen. Umezaiña. Eskolatik urtenda. Urte bi eskolan bakarrik.

1.2. 9 urtetik 18ra etxetik kanpo lanean

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/003
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:03:46. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Umetan neskame egon zen baserrian eskolara bidaltzearen truke eta mantenuaren truke aritu zen lanean. Gero

Berriatuko baserri batera joan zen eta han lan gogorrak egitea tokatu zitzaion. Eibarko osaba-izeba batzuek lana aurkitu zioten eta bertara joan zen umezain lanera. Geroago Ondarroako "Hotel Comercio"-n eta beste etxe batean aritu zen neskame lanean.

Transkripzioa

- Eta dirurik-eta pagatzen zetsuen basarrixan ta ardi-zain ta ibili ziñanian?
- Ez, han eskola bialtzen niñuen ta.
- Han eskolara bialtzia.
- Han mantenidu bakarrik, besteik ezer be ez.
- Eta ze eitten zenduan han egunero beste basarrixan bizi edo domeketan-edo etxera edo...?
- Bueno, domeketan gero atsaldin-edo etxera bai osteri, baiña bestela bizimodu guzti bertan.
- Bertan?
- Bertan, bizimodu guzti, urte bi. Gero handik... handik gero eskolatik urten ta Berrittuko hemen baserri... zer bat... etxe bataa, ume-zaiñaa. Han urtebete ein neban. Umik oiñez ikesi ebanin be itxurie ez notsen holako falta handirik eitten. Badakizu, bizimodu be estue egongo zan ta. Eta, gero, banoien etxaa, ta Berrittuko Altzalei baserrikuk ikusi gaittunin esan usten: “Nora zoiez? etxaa?”, "Bai", “Ez, ez jun etxaa –esan usten /esausten/–, geurin eitten dozu /eitxozu/ falta ta”. Baiña ni orduen hain noien pozik etxaa amaana, ba “ni banoie etxaa” esan notsen. Gero etxin esan neban, esan neban gero etxin, zelan esan usten /esausten/, ta “bai, baiña han ondo eongo ziñake”. Neukezan...
- Hamaika-hamabi urte?
- Bai, hamabi urte. Eta... hoixe, 12 urte. “Eta han bezperan eitten dittue / eitxetxue/ gana-jatekuk be ta domekan biherrik be ez. Ta han ondo eongo ziñake”. Ta pentsau! hamabi urteaz. Eta, ba, jun. Jun nitzen. Jun nitzen, baiña domeketan be otzarie –zuek ez dozue jakingo baserrixen zelako otzarak [erabiltten zittuen] lehena– otzarie ta igitaixe emon ta domeketan be haxe bete bedar ekarri eraitten osten /eraitxosten/. Hamabi urteaz. Han ein nittun urte bi. Ta zelako... zelako biherrak ein biher!
- Bai? Gogorrak?
- Gogorrak. Mutil-kosko bi euzen, eurek manejau ezinde goixin, eurek jantzitte eskolaa bieltzeko, baiña danak eitten nittun. Eta gero han urte bi einde, gure neba maixorazku ezkontzi egin eban /eiban/ etxaa, ta neukezan tia ta tio Eibarren, neure aitte besotako ta ama besotako, ta harek esan usten: “Damiana, ez za eongo baserrixen –esan usten–, neuk topauko dotsut lekue kalin ta kalin hobeto eongo za ta etorriko za Eibarra. Neuk erungo zaittut Eibarra” esan usten haretxek, ama besutakuk. Holantxik gero jun nitzen Eibarra. Han be umik euzen, umezain, ume zaintzen ta etxeko bihartxuk ein ta ba... han hobeto baserrixen baiño.
- Hobetotxuau han?
- Bai, hobeto han baserrixen baiño.
- Umezain beti errezaua?
- Han be umezain, umik euzen ta umezain. Umik eskolara erun bai, txikixena neuk zaindu...
- Orduan zu ume-umetatik biharrian?
- Ume-umetatik biharrin. Gero han urte bi ein, beste urte bi han ein ta... Ondarruko Hotel Komertziora krixeda jun nitzen ostaa be. Ta holan jun zen nire bizitzi. Han beste urte bi. Gero Markiñara jun nitzen banku... bankerue zan ugezaba. Bederatzi urtetik hamazortzi urtera arte –gerrik urten eban hamazortziaz eta, pentseten dot holan zala– bederatzi urtin hille bi ein nittun bakarrik etxin. Ta hamentxe, oin arte behintzet osasunaz ondo nabil.

2. Familia eta harremanak

2.1. Umezain 18 duroko soldata urtean

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/004
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Gogorra egin zitzaion adin horretan etxetik kanpo egon beharra. Umezain ibili zenean 18 duro irabazten zituen urteko eta irabazitakoa amari ematen zion.

Transkripzioa
-Bederatzi urtekin ya, bederatzi urteaz e etxetik urten ta…
-Etxetik urten.
-Ta gazte denpora etxera joan barik-edo, bueno joan baiña…
-Jun eitze nitzen domekatan-eta joate nitzen baina behintzet beste denpora guzti hantxe.
-Eta gogorra eitze jatzun?
-Pixka bat bai, ze bera uzaba andri eta uzaba ezin holako zera, baina bertako alabi zan pixkat gogorra, gogor hartzen neun ta aguantau biher.
-Da gaiñera gurasuak eta anai arrebak-eta beti etxian ta…
-Ba, harek beti tiretzen dabe, anai-arrebak beti tiretzen dabe, baña aguantau!
-Eta esan dozu hasieran ardizain da ibili ziñanian han ez zentzuela pagatzen, ez?
-Ez , eskolan ibiltzen nitzen.
-Umezain eta ibili ziñanian pagauko zentzuen.
-Bai hamazortzi duro, urteko.
-Urteko?
-Urteko, ta gero baserri joan nitzenien hogeta bost.
-Ta ganera dirua, amari?
-Bai! Karo, ta gero arten uzaba oso ona neuken, ta urtie ein nabenin hamazortzi duro etxera eruteko, ta duro bat emozten neuri erregalu uzabak. A neutzako.
-Hori zeutzako,
-A neutzako,
-Eta? ze in zenduan duro horreaz?
-Ez dakit, gordeta euki naben amagaitzik, gero ez dakitz ya, ez dakitz ze erosi neban, igual bera be amari emon netsan.
-Amari?
-Igual, ez dakit, horixe ena akordetan, hortxe ez dauket ondo memorixe.

2.2. Eibarko kalea eta baserria bizileku

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref**: BRT-004/006
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:12:05. **Bukatu**: 00:14:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fernandez, Javi
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Mutil batekin hasi eta Eibarrera joan zen bizitzera berarekin, baina denbora gutxi barru baserrira bueltatu ziren gizonak hala nahi zuelako. Senarra bizikleta lantegietan ibili zen lanean Eibarren eta Damiana josten. Bi seme izan zituen.

Transkripzioa

- Hasi nintzen mutil batekaz...gizon mutil batekaz hasi nintzen ta baserrire ezkondu nintzen, baserrire ezkondu nintzen ta hantxe euki neban pixkat e, baserrire ezkondu nintzen, baiña gero...ez. Ez dot ondo esan. Parkatu. Baserrirako esperantza neukan nik gizona...ta...kanpora bialdu eben. Ta nire anaixa. Eibarrera. Tiak e...ordun be tiak eta tiok be lagundu eusten. Biharra topau, etxi topau, ta Eibarren egon ginen...lau urte ta erdi egin gendun. Eibarren. Ta gero e, bera be beti baserrira begira euen. Es ke biharrik ez zan etorten bada e, ofizixorik ez daukana gero e, zer? Ta beti baserrire begire; atzera baserrire. Ni negarrez. Nik nahixa neban hantxe. Asko be.
- Kalian.
- Kalien, ba hor...gu ondo geuzen kalien. Neuk josten ein, ta gero e, holako lokal baten hiru ohe sartun nintxun ta lo etxeko hartun nitxun. Ta gizonak ez eban asko irabazten baiña... Hamahiru pezeta zortzi ordun. Ta hareri e, bost pezeta kendu /bir/ bihar jakon e errenti pagateko...hogeta hamar ogerleko zan e errenti ta. Baiña, gero dirue aurreratu gendun halan ta guzti be. Gero baserrire...haixe baserrire...baserrire etorti etorri jaten niri.
- Eta Eibarren biharrian-eta, nun ibilli zan gizona?
- E...ibil zan Orbeanin lelengo ta gero Beistegin.
- Bizikletan.
- Bai. Lelengo “Orbean” ta gero Beistegin .
- Orduan Eibarren bihar asko egongo zan, ez?
- Bai, ba biharrik biharrik ezik ez euan ordun. Baeuan biharra, baeuen biharra.
- Eta zeu bitxartin e josten.
- Ni josten, ni josten. Gero umik be etorri jatezen, bi e seme bi daukaz, bixek erregen egunekuk, diferentzixe “de un año”. Urte baten e aldekuk. Bigarrena etorri jatenin e jostiari laga ein bihar izan nentsen. Eurek zaindu, eurek zaindu arratsaldin e umik.
- Eta baserritik eta Berrittutik e Eibarrera joan ta, ia Eibar e herri handitxua ta...
- Bai. Eibarren gustora. Gustora Eibarren.
- Herri txikixe baiño nahixago handixa?
- Bai. Gaiñera e han e bizimodu ona. Bihar asko einda han be, han be josten einde, umi be etorri jaten urte betegaz bat, ta gero beste bigarrena, bigarrena etorri jatenin jostiari laga ein /bir/ bihar. Ta gero atzera baserrire, atzera baserrire.
- Ta hori ez jatzun gustau hainbeste.
- Ez. Ez jaten gustau. Baiña, atara gendun bizimodua hor be. Bihar asko einde. Bihar asko einde.
- Eta ze baserrittara joan ziñazien?
- Torremutxu.

-T orremutxu?
- Torremutxu. Han e sunormalen ondun e euen e baserrixe. Bai ta gero, seme...
- Ze barriada?
- Ha e Plazakola.

2.3. Sagarrak saltzera Eibarrera

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/008
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fernandez, Javi
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Semeak injineru agronomo ikasi zuen Valladoliden eta bertako baserri guztietan sagar arbolak txertatu zituen. Damianak gidabaimena atera zuen eta sagarrak saltzera joaten zen "dos caballos"a hartuta. Plazan eta dendetan izugarri saltzen zuen, astean behin joaten zen eta kiloa ehun pezetan saltzen zuen.

Transkripzioa
- (...) juten zirin eskolara, baiña gero pentsau eben estudixeti. Bertako direktorik edo harek badakixu hara estudixetako, ta estudixati pentsau eban, eta Valladolizera jun zan estudixatera, agronomo.
- Semia.
- Semi. Ta, hantxe ein zittun hiru urte, interno. Nik batzen nittun e txanponak danak berantzako. Interno. Hiru urte. Baiña, atara eban e, beran titulu. Agronomoa, amaittu eban. Ta gero han nik uste dot han sagarragaz ta diruaz ta hartzen eben e sagar asko ta han e Valladolizen ta Valladoliztik han e alboko lekuren bata. Ta pentsau eban etxin ba baserrixen ipintxi sagarra. Ipini zittun milla arbola. Baserri guztik sagarra.(...) forman. Hirugarren urtin emoten hasi zan sagarra. Ta, neuk orduntxe karneta atara neban, eskerrak karneta be, ez neban nahi, ez neukan gogorik, baiña, dale batak eta dale bestik, atara neban karneta. ta sagarra e hainbeste sagar e hartzen hasi giñenin e harek saldu ein /bizin/ bihar zirin, ta furgoneti neuken e dos caballosa laureunin kilotara e laureun kilo, ta bete-bete einda juten nintzen Eibarra, ordun bai Eibar topau naben, ta saldu, bederatzi-hamar denda klientik ein nittun, plazan be bai, ta saldu danak eta etxera. Goixeko sei ta erdixetan urten e baserrixen, ta atzeran bueltan natorrenerako, ordu bixek.
- Ta hori egunero edo..
- Ez, astin hiru bidar. Lenengo hiru bidar hasi nintzen, eta gero ein nittunin klientik bi bider.
- Hori izango zan e udazkenian, ez?
- Bai, bai...Septiembrik, ta aurrera. Negun ixaten zan ta eueldi txarra sarritten ta, ilunin de, dale.
- Ta ordun be Eibarra?
- Eibarra. Gero hamen, hamengo herrixetan be bai e! ta gero plazara juten nintzen Ondarrora. Karneta atara nebanin e salbau nintzen asko, ze

aurretik e, lantzin kotxe baten ta buf...
- Ta sagarra ondo saltzen zan?
- Ondo. Ba hor daukat e kuadernoren bat. Kuadernun dakar e zematen saltzen neban be. Ehun pezeta artin, ehun pezeta kiloko. Ekarriko dotsut...Ekarriko dotsut kuadernu, ez?
- Zeuk nahi dozuna. Hori diru izango zan ez?
- Diru, diru hauntxe. Ba nik zemat bidar esan doten: karnetik ez baneban euki, ez kendun salduko e hain ondo, ta urte baten e asko hartu gendun, txabola handi bat be ein gendun sagarra gordeteko baiña ezin kabidu, ta "Eroskiri" emon geuntsan ta paga euskun laurehun parte, baiña halan ta guzti be sobran geuken ta emon ein biher. Baiña Eibarren ta, Eibarren bertan onduen saltzen neban, ta hamen e, Ondarrun ta Markinen ta hemen baeuzan dendan, ta geratu barik.
- Eta hori noiz zan gutxi gorabehera? Ze urte inguruan hasi ziñazien sagarrekin?
- Ai, horixe...
- Ia Berandutxuago ez? "Año sesenta"-edo?
- Bai. Ezin nizu horixe esan ondo.

2.4. Semearen dendan harakin lanak ikasten

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/009
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:19:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fernandez, Javi
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: 48 urte zituen karneta atera zuenean eta aurretik bizikleta ere izan zuen. Semearen aipamena egiten du; Ondarroan denda bat ireki zuen eta Damiana harakin lanak ikastera joaten zen bertara.

Transkripzioa

- Berrogeta zortzi urte neukazala karneta atara neban ta handik e gero zan hori, handik e Ekaineko urte batzutara.
- Hirurogeta pikuan orduan.
- Bai. Berrogeta zortzi urtegaz karneta atarateko animau egin /bide/ bihar da. Ta suerti euki neban e, sekula ez neban azidenterik eduki.
- Orduan zu andra modernia izan zara. Lehenengo bizikleta, ta gero kotxia ta...
- Danak. Ta, gero, beste semi bata, seme batak agronomu ikasi ben ta bestik e hemen supermerkaua ipini eban Berrittun. Ta, gero e, pentsau eben, Ondarrun ipintxie dendatxua ze barkutara eruten eban. Barkutan sartzen eban jeneru. Eta Ondarrun ipini eban beste supermerkautxu bat ta gero han be jenti /biben/ bihar eben, ta hara juten nintzan. Eibarrera juten nintzenin goixin be bai, ta Eibarrera juten juten nintzenin atsalde partin dendara. Ta han e eitten neban e okeli(...). Karnizera ikesi.
-Danetik.
- Ta halan ta guzti be biharrak ez dau galtzen personi. Ia zemat urte daukaten.

2.5. Betidanik andre modernoa

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/020
- **Iraupena**: 0:04:52. **Hasi**: 00:41:58. **Bukatu**: 00:46:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Damiana emakume modernoa izan da beti, bizikleta eta autoa izan zituen-eta. Berak karneta atera zuenean bi emakumek bakarrik izango zuten karneta Berriatuan. Karneta atera zueneko kontuak; lehenengo Markinan eta ondoren Eibarren ibili zen.

Transkripzioa
- Eta, lehen be pixkat kontau dozu baina, zeu be andra modernia izan zara, ez? Gaztetan-eta bizikletiaz-eta ibiltzia eta.
- Bai. Hori esaten eusten.
- Kotxia be nahiko ez?
- Bai, ordun e, andra birek edo hiruk eukiko gendun bakarrik e Berritxun karneta.
- Kotxia oin dala berrogeta hamar urte, ez?
- Horixe, ba berrogeta zortzi urteaz atara neban karneta, ta neuk banekixen falta eitten dostela baiña, ez nintzen atrebitzen, animetan, kobarde. Ta, gizon batek e esan eusten e, neure koiñatuk esan eusten Eibartik etorten zin harek e, asteburu pasetan gurera ta. “Damiana, gauza bat dauket geur esateko zuri”, “zer?”, “etorri hona!” esan eusten, mahaixen jarritte gauzen lekutik, “etorri!”, “esan hamentxe!” esan neutsen, “horra? esan”, “Ez, zeuri bakarrik esan bihar deutsut, zuk pentsau dozu sekule bestik eitten dauena ezin zeinkela ein? kontestau horretxei, erantzun horretxei”.” Ba ez dakit ba, ez na akordetan”. “Ba oin pentsau bihar dozu, karneta atara bihar dozule”, “ene hori e, neuk badakit falta

eitzen dostela baiña, ez na atrebitzen", "ba, ba, hasi, hasi, ikesten hasi ta ikusiko dozu, zelako estimaziñoie emongo dotsezun, zelako aukeri emongo dotsun bizimodureko karneta eukitxi". Errezoi euken, errezoi euken, baiña, hasi nintzen baiña, semik bata edo besti egongo bazin, sasokuk neukozen semik, bata edo besti etxin egongo bazan laguntzeko pixkat norberai, bata Ondarroan euen ta besti Valladoliden, neuk ein biher, gero biharra be ein bihar zan baserrixen ta, gabin-edo.
- Astirik ez.
- Astirik ez, ta, gizonak esaten eustan, "oin be horrek hartu dozuz? guazen lotara". "Bai baiña honek e, ein ein bidi/ biher dire, ein ein bidi/ biher dire honek". Ta holantxerik e, baten e, esan eusten gizon batek e, Ondarrure personal junde: "Damiana zer, zelan zoiez karnetaz?" Ta, ordun e, autoeskuelan ez eben erakusten, norberak ein bihar zittun tesak, atzin euken liburuk e, zelan dizen e, ikusteko. Eta norbera ein /bizen/ biher zen. "Ta zelan zoiez?" ta, "ondioik e, failluk eitten dittuaz ta, oraindioik e, pixkaten itxain ein bihar dot". "Ba oin gauza bat esan /bitsut/ bihar dotsut ba, Bilbora barik jun bihar dozu Eibarra, asko errezao atarako duzu karneta ta Eibarren". Bai ba, Bilboko kalitan baiño , Eibarren Arratera. "Ta, neuri esana ein /bizu/ biher dozu e", esan eusten, ta jun ein nitzen Eibarra, autoeskuelara. Luengo autoeskuela, jun nitzen, eta, esan eitten osten hamengo autoeskuelakuk e, "laster za preparaute, laster za preparaute", baiña, ez nintzen atrebitzen, ba Luengora jun nintzen, hiru ostera ein nittun bakarrik, laugarrenin jun nintzen e, eskuela armerixa teoriki eitzea, ein ein neban teoriki, teoriki ein neban ta gero Arratera, kotxiana eitzea, ta neure aurretik e, maistra bat, nire aldin gazti, palo bittartin ezin sartute harek eitten zittun negarrak, harek eitten zittun negarrak. Neuk be ezin neike ba, horrek ezin dabenik neuk be ezin neike ein pentsau neban neure modun baiña, ein neban, lehelengun, lehelengun ekarri naben.
- Orduan esan dozu, autoeskuelara e, Eibarrera, baiña lelengo?
- Hiru ostera ein nittun.
- Baiña, lehenau, Markiñan-edo egon ziñen edo..
- Bai Markiñeko autoeskuelan ibil nintzen, Markiñako Etxabe, Etxabeaz ibili nintzen. Baiña, kanbixau ein neban, ta hiru ostera ein nittun bakarrik, Eibarra, hirugarren osteran esan osten bueno ya, bixar etorri, eskuela armerixan teoriki, ta gero e, Arratera, ta karnetaz etxera.
- Eta konduzitzen-eta, praktikua-eta, non eitten zenduen, orduan kotxe askorik be ez zan egongo praktikatzeko eta ez?
- Zelan praktikatzen?
- Teorikua eta esan dozu etxian ikasten zenuela, ezta?, eta praktikua?
- Teoriku etxin, praktiku berton, hamentxe, eta Ondarruko kalin be bai, Ondarruko kalia ona zala e, han e jentian tartin-ta ibiltzeko ta ona zala ta. Praktiki hamentxe, berton. baiña gero gero Eibarren, gero Eibarren amaittu naben.
- Orduan sasoian kotxe asko ez zan egongo ba Berritxun.
- Bai, ni neu baiño gehixa batzuten, e, bueno Berritxun ez, baiña esan nahi dot Eibarra osterak -ta, baiña hortxen neure dos caballoseaz bizimodu atara.

2.6. Eibarrera lehen bidaia oinez

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/029
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:57:00. **Bukatu**: 00:59:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rey , Ainhoa
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Eibarrera sarri joan izan da, hasieran umezain, gero sagarrak saltzera... Eibarrera lehen aldiz oinez joan zen, bidean senide batzuen baserrian geldialdia eginda. Eibarrek fama txarra zuen, baina berak harreman ona izan du beti eibartarrekin.

Transkripzioa

- Zeu Eibarrera askotan joan zara e! Ze lehenengo umezain ta gero biharrera ta.
- Bai ta gero sagar saltzera.
- Eibartarrak asko ezagutzen nabe. Hontxe be eibartarrak ikusten banabe, haren “zeure sagarrak ontxe akordetan jakuz” esaten nabe..
- Eta Berritxutik joanda hamabost urteaz Eibarrera ta ze iruditzen jatzun?
- Ba Eibar haundixe, kapital, kapital Eibar.
- Sekula egon barik egongo ziñan zu...
- Bai, juten nintzen tia ta tio neukezan, juten nintzen Eibarrera urtin behin.
- Eta zelakua, gusta jatzun?
- Baiña Eibarrera Eibarrera ni jun nintzen, hontxe, hoixe esan bihar dotsut oin, aintziñeko gauzi. Eibarrera zelan jun /bi/ biher neban neskame, Eibarrea, jun nintzen oiñez. Erropa asko be ez neban erungo, oiñez jun nintzen eta ez daitx aizten batek-edo lagundu eusten, hor Barinagako baserri baten tio ta tia neukezan ta etapa bitan jun nintzen Eibarra; han lo ein ta bixamon, oiñez. Ez dakit nik autobusik ez zeuen edo zer edo, dirurik ez eon, baiña oinez jun nintzen behintzet Eibarra.
- Bidia bazekizun?
- Bai gitxi gorabehera.
- Gitxi gorabehera.
- Preuntauten.
- Bai.
- Lehenago esakeri: “ Preguntando se va a Roma”
- Bidiak be ez ziren izango oinguak.
- Ba bidie.
- Txarrauak.
- Bueno, bai hobiak ez seguruna, baiña jun giñen behintzat. Han lo eiñ ta hurrengo egunin berta ta.
- Barinagan lo ein ta gero.
- Bai, Barinagan lo ein ta gero hurrengo egunin Eibarra oiñez. Hankak onak ordun.
- Bai. Orduan Eibarrek fama txarra zekan baiña, ez?
- Ba eibartarrak fama txarra ... nitzako onak izan dira.
- Orduan..
- Ni Eibarri, ni Eibarri kariño handi dotset. Bizi be hantxe izan nintzen ta seme ba hantxe jaixotakuak daukadaz. Eibar gero sagar saltzen be ondo ibil nintzen ta nik Eibarrei kariño handi dotset.
- Baiña bazekan famia republikanoak-eta..
- Bai hor, bai hor baeukan fama pixkat baiña.
- Elizian kontrakoak-eta.
- Bai hoixe. Hortxe txarto.
- Baina gero ez zan holakorik.
- Gero pasau zan hori. Hori denporaldia pasau zen. Pasau eitten di denporalik.

2.7. Beti baserriko lanetan

- **Hizlaria(k)**: Elordi Egurrola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRT-010/002
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:02:13. **Bukatu**: 00:03:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Bere gurasoak eta bera ere beti baserrian ibili dira lanean. Soldadutzarako baino ez zen joan baserritik. Umetan 13-14 urterekin utzi zion eskolara joateari eta ordudanik beti baserriko lanetan ibili da.

Transkripzioa
- Ta zure amak eta aittek biher eitten ebien etxetik kanpo?
- Ez, baserrixen beti, etxin.
- Baserrittarrak.
- Baserrittar naturalak, bai.
- Ta zeu be ze ibili za baserrixen beti?
- Neu be beti baserrixen. Nik etxetik ez dot urten, ostontzin gerra edo, soldau jun arte. Soldau jun arte ni hementxe. Soldautzatik etorritte be hamentxe segidu dot nik.
- Eta zuk ze akordu dekozu zure umetako...?
- Nik umetako akordu, lehenengo, txiki-txikixen, gero eskola. Eskola denpori amaittu jakunin, 13-14 urteaz laga notsan eskoliai. Handik atzea aittan ondun biherrin beti baserrixen, aittaaz, aittaaz ta amaaz.
- Ta eskolara nora joaten ziñen ba?
- Eskolaa Berritxure.
- Ta nungo umik juten ziñien?
- Oiñez, oiñez jun eta oiñez etorri. Ordun ez euen ez kotxeik, ez ostontzekoik.

3. Baserria

3.1. Bederatzi sagar mota ezberdin

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/010
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:19:27. **Bukatu**: 00:21:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Bederatzi sagar mota edukitzen zituzten; izendatu egiten ditu eta bakoitzaren urte sasoia aipatzen du. Eibarren gehien saltzen zen sagar mota zein zen eta ezagutzera nola eman zuten kontatzen du.

Transkripzioa
-Sagarrak-eta ze ziran danak klase...

-Ez, beratzi bariedade, beratzi badierade.
-Lelengo batzuk emote zeben ta gero beste batzuk-edo…
-Bai, nuevaeuropa zan lelengo hasten zana, ya agostuen hasten zan o juliuan azkeneruntz nuevaeuropa sagar gorri-gorrixe, edarra.
-Zela, zela esan dozu?
- Nuevaeuropa.
- Nuevaeuropa.
-Nuevaeuropa, sagar gorri-gorrixe, haxe goixeku, goixeneku, ta gero euken goldena ta reinetak be bai hiru klase, baiñan gehixen esitu gehixen eukena zan granesmite, ta gehixen arboli be gehixen haxe euki gendun, suertie euki gendun. Granesmite, Eibarren dendetan haxe, baiña lelengun ez zeben ezetzen hori sagarrori plazan. Ta andra batek bestiai bateri esan otsan: “hori sagarrori erungo´zu? Neu begire egoten naz baiña ez na atrebitzen ta”. Neu be holantxik egoten nitzen baiña, neu be holantxik egoten nitzen baiña […] eizten bat aprobetako emon, ta gusteu ein jakon ta horixe ein biher izeten naben e, klientiegaitzik. Ez xakoen ez zaben ezetzen ta ein biher izeten naben goldena eta reinetie ekartzen tzuein eta halan begire egoten zien eta “aiba hau probetako”. Holantxik ein nitzun klientik.
-Ta gero esito gehixen horrek.
-Esito gehixen berak.
-Eta ze gehixau zekazuen, beste klaseren bat be bai?
-Sagarra, sagarrak geunken, goldena, horixe granesmite, ta reineta gorrixe, hori reineta-reineta besti ta beste… beste izenik ez xazt gogoratzen baina beratzi bariedade eguezan ba.
-Eta orduan gehixenak ziran…
-Danak jatekuk, sagardaurakoik ez, danak jan-sagarrak.
-Bariedade barrixak ez? Hamengo baserrixetako-eta…
-Ez, lehena hamengu zen urtebeteik bos kontei, baina horrek ez batak ez bestik ez zeben ekarri guzen bille, beroi semi guzen bille injertauteko ekarri tzun ta hirugarren urtin ya sagarra emoten, ya injertaute.
-Horren hobiak ziran, granesmita eta…
-Danak, danak injertaute ekarri´tzun, ze landara sartu ta gero injertau ezkero denbora asko itxoin bi jako, ta injertaute ekarri ezkero hirugarren urtin ya emoten hasi ta saltzen hasi biher zan.

3.2. Sagarren zainketa

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/011
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:21:44. **Bukatu**: 00:25:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fernandez, Javi
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Sagarraren zainketa nolakoa izaten den azaltzen du: intsektuak hiltzeko botikak, kimatze lana, etab. Sagarrak biltzeko laguntzaileak beti izaten zituzten, gero trukean sagarrak ematen baitzizkieten. Oiloentzat egindako tokian gordetzen zituzten sagarrak azpian lastoa botata. Hala ere, sagar mota guztiak ez ziren berdin gordetzen. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa
- Eta sagarrak saltzia baiño, gero lehenau be lana eukiko dabe ez? Biharra eukiko... guztiori zaintzia ta...?
- Bai, zaindu bihar izeten jako zertu, zerak jundiu ein bihar izeten di. Geunken traktora ta gero traktoren atzin tzisterni ipini ha ez daitz zemat litroku zan berrogeta hamar e gehixa. Tzisterna handi bat inkeu traktorari, ta, hiru egun bihar zittun harek jundiketan ta jundiu bihar izeten zin, hasi loran, hasten zirin loran marzuan azkenerutz-edo, ta handik agostun azkenera arte, hamabostero, danak pasau bihar izaten zittun. Ta bihar haundixe emoten eben, baiña sagar ona hartzen gendun hemen. Sagar ona.
- Eta azpixak-eta garbitzeko?
- Sagarren azpidxek? Sagarren azpidxek garbitzi baiño, podau ein bihar izeten zin, ta podadorik jornala bat kobretan eban edarra.
- A! kanpotik etortzen zian?
- Bai, berton herrikuk, baiña horretantxe, ya horretantxe dabizenak. Hiru gizon etorten zirin. Bai azpittik be garbittu bihar izeten zirin.
- Hori zelan? Zeuek?
- Ez, bihargiñek. Geuk, zelan? Gizona ta neu geuzen bakarrik eta.
- Eta gero, batu ta... Hori zelan?
- Batzeko, hortxe eukitxen gendun suerti. Sagar batzeko, sekule pezeta bat ez gendun emon. Ze, emoten geuntsan sagarra nahi beste. Asko geunkanetik. Ta eurek be pozik ta geu be pozik. Ta ez gendun sekula euki sagarra batzeko okerrik.
- Herriko jendik laguntzen eban?
- Bertoko bueltako jendik, eta gero, geukan e...aiztie, Eibarren, ezkonduta, ta haren gizonak eukazan lagun asko, errekadisti zan, Eibar-Vitoria, ta furgoneta handi bat euken, ta etorten zan hiru-lau edo... bost be igul, hartu ta zapatuten be etorten zan ta nahi beste sagar batzen oskun. Gero emoten gontsen, pillo bat sagar eurei, ta danok pozik. Holan e... sekula sagar batzeko ez gendun euki problemaik.
- Eta gero, horrek sagar guztiok gordetzeko, zer eitten zenduen?
- E, gordeteko e...bageunken leku. Oilluentzako ein genduna lelengo, gero oilluk kendu ta sagarrak ipintteko.
- Eta bertan sartu eta kitto edo, zelan egiten zan?
- E? Gordeteko e...
- Kajetan-edo? Zelan izaten zan?
- Ez. Bota azpidxen lastu, ta gero ipintten [zeuntsen] holan, zerak, egurre... egurrek lodidxek ipintzen [...] ta raja, raja... bota ta hantxe eukitxen zin. Baiña hori “Gran Smith”e zan diferenti gordeteko be. Baten pasau zan e...pixkat pikau ein zan. Zelan dan ur askoku, izerdidxe eitten jakon, eta gero hasi zan bentanak zabalik eukitten, bentanak zabalik euki biher, izerdidxe ein ez deixon. Beste sagarrei ez jakona eitten, horrei. Ta baten etorri zan ingenieru bat ikustera, sagarra ikustera, ta, sekula ez ebala ikusi kamara barik halan hain ondo sagarra konserbaute, esan oskun. Ta ondo konserbaute euen. Es ke... Bai, bentanak zabaldu ein biher, bentanak zabaldute. Haundidxe zan lokala, e, bastante haundidxe.
- Eta arratoiekin-ta ez zenduen eukitzen problemarik?
- Ez. Ez, ez, ez... ez gendun arratorik sekula euki problemarik. Suerti.

3.3. Gari-jotzea "Milloi" (Merelludi) auzoan

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/023
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:49:50. **Bukatu**: 00:53:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: "Milloi" (Merelludi) auzoa eta bere baserri ingurua garai batean eta gaur. Garia eskuz jotzen zuten; nola azaltzen du. Amak arto-opilak eta ogia egiten zituen. Gerra garaian, ogi beltza izaten zen.

Transkripzioa

- Eta ingurua ta zeuek ee, zure ume denporatik eta ez da asko kanbixau, basuak-eta lehen dana e labrauta egongo zan dana.
- Bai, oin labrantza ta gitxi, oin ee, zelaik. Nok eñik eta be ez da ta. Baserridxetan oin e, leku batzutan bai baiña, nok eñik be ez dau ta oin zelaik, bedarra.
- Eta zeu gaztia ziñanian?
- Gu gaztik giñinian e, labrau eitzen zan da, ordun e, artu ta jorratu atxurraz ta.
- Garixa be bai?
- Garixe be baitte.
- Milloi-eta, gari lekua zan?
- Bai, garidxe ebaitte, gero e, metak ein ta, jo gero, harridxen ta. Gero makiñi etortzen da halako baten baiña aurretik e, eskuz joten.
- ...., eskuz?
- Eskuz, idearik be ez dozu eukiko hori zelan izeten zan.
- Kontau pixkat.
- Baaa, harrixek e ipintzen zin holan e, harrixek, harri e, karatxazko harrixek ipintzen zin.
- Losak?
- Losak, ipintzen zin ta, azauek eitzen zin garixaz e, ez dakitx zuk hori zuk iñoz entzun dozun, azauek e, garidxe ebaitzen zan, garidxe badakixu gitxi gorabera zelanku zan ezta? Ebaitte zan ta gero, holan e, moltzuk moltzuk einde ta gero a eitzen zan lotu, da gero harek azauek eitzen zin e, jo.
-Hartu, azau hartu, gari-txorta bat hartu eta lotu
- Lotu. Ta gero arek azauek eitzen zi e..
- Lotu zereaz?
- Beran e, beran modukuaz, lotu.
- Lasto zati batekin?
- Bai. Ta, gero e, eitzen zan e, pixkaten siketu arte e, holan e, mutxurtxuk esaten jakon eitte zin. Ta, gero e, denporiaz eitzen zan e, siketu, ta ein / biaztena/ biher zana e, garidxe soltau, garidxe soltau. Ein /biaztena/ biher zana harrixen jo holantxeik, da gero e, garbittu, makiñak egoten zin garbitzeku, hautsek-eta kentzeku, ta gero eitten zana gorde. Ta erun e errota ta urune ein, urune ein, ta gero etxin geunken labi, guk ez gendun goserik pasau, pasau, gaztetan be, labi geunken e etxin, laba haundixe, eitten gendun, amak eitten eban han, bueno, masi geuk be bai sasotu, masi geuk eitten gendun, baiña gero amak eitten eban e laban sartu, ta laban erre, artu, arto-opille, ta ogidxe be bai, gerra denporan guk ez gendun goserik pasau, etxin eitten gendun ta, gauza erreza zan hori.
- Da ogidxa garidxakin eta...
- Garidxa hartzen zan, hartzen zan etxin de, gero e, errotan kanbixau, garidxe, ta artu be bai, ta artu-urunaz e, artuk eitten genduzen, arto-zopak

ein ta gero esniaz.
- Artua esaterako, ogi modukua baiña arto-urunaz eindaku.
- Arto-urunaz eindaku, arto-urunaz eindaku.
- Eta beste ogia be bai.
- Bai, ogidxek bai. Ta guk ez gendun ogi goserik pasau, baten e, auzoko bat hantxe zihar, ordun e ogidxe eskasa euen ba gerra denporan-ta, ta, gizon bat hantxe ziher pasa zan da, gure amak emon eutsan ogidxe, sekule ein dotsenik erregalorik onena /eitsela/ ein dotsela esan eutsan. Eske, sasoi baten ogi falti itzela egon zan, entzunde eukiko dozu hori
- Gerra ostian?
- Gerra ostin. Ta guk ez gendun ogi goserik pasau, etxin eitten gendun...

4. Herria, azpiegitura

4.1. Marmitak eta berdura autobusean hartuta

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/013
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:28:47. **Bukatu**: 00:30:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Karneta atera aurretik autobusean eta kamioian joaten zen azokara. Marmitak eta berdura autobusean eramaten zituen eta, autobusak bere ordua izaten zuenez, hura joateko orduan plazatik alde egin behar izaten zuen, jeneroa saldu gabe izan arren.

Transkripzioa
- Eta kotxia euki aurretik, autobusian edo...?
- Autobusin. Edo... e... autobusin ibili giñen eta furgonetan be bai, ahal dan modun.
- Hamendik jende asko juango zan, gaiñera.
- Asko, asko, plazara asko ordun. Oin plazak be galdute daz, baiña ordun asko. Baiña beste gauza bat izen zan karneta ataa nebanin, ze bide zati bat be bageunken kamiñoa atateko eta hara be erun ein biher. Bai. Baiña gero etxin e... edo karneta ataa nebanin, zan beste gauza bat.
- Eta, bestela, marmittak-eta autobusian?
- Bai, aurretik autobusin.
- Marmitta eta guzti?
- Marmitta eta guzti. Autobusin be ibili giñen eta furgonetan be bai. Kamioin, kamioie ibili zan.
- Eta berduria eta esnia eta danak autobusian?
- Danak hantxe, danak hantxe. Baiña trastorno handixe zan, ze harek eukitxen eban ordu bat etortzeko, eta plazan igul ondio saldu barik daz gauzak ta joten eban txalu ta, txalu joten ebanin, saldu barik dauzenak hartu ta etxea. Baiña norberan kotxi euki ezkero, ba, saldu arte hantxe egon.
- Eta autobusa ze zan, Markiñatik zetorrena edo Berritxutik urtetzen zana?
- Ez, plazara osteri apropos plaza osteri eitten ebana, bai.
- Bakarrik Berritxuko jentiakin?
- Ez Markiñetik.
- Markiñatik...

- Markiñetik.
- Plazara juteko.
- Plazara juteko, bai. Beran ordue eukitxen eban.
- Goiz izango zan.
- Bai, ordue eukitxen eban juteko be eta etorteko be bai.
- Eguna... eguna hasi orduko, ez?
- Bueno, bai, bastante goixa, bastante goixa jun biher izten zan, bai. Ta gero, neure kotxiaz hasi nitzanin, gizonak esaten osten "Gerotxua junde be bardin dozu, zetako jun biher dozu /bizu/ hain goixa" ta, baiña nahixa dot jun ordun.

4.2. Berriatuko auzoak

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/017
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:36:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Berriatuak dituen auzo ezberdinak aipatzen ditu: Merelludi ("Milloi"), Madalena eta Asterrika. Berriatua garai batean Ondarroakoa izan zen, baina barriatuarrek protesta ugari egin zituzten eta lortu zuten berriz Berriatua herri izatea.

Transkripzioa
- Eta Berrittuk barrixuak, auzuak eta, eukiko dittu, ezta?
- Bai.
- Diferentiak eta.
- Bai, beste bat Madalena, hor goixen Madalena. Ta Asterrika. Asterrika, Madalena, hiru barriada daukez Milloin Berrittuk.
- Milloi, Madalena ta Asterrika.
- Asterrika, bai. Asterrika hortxe goixen dao, Ondarru partin.
- Eta sasoi baten Berrittu bera be Ondarroa izan zan, ez?
- A, bai, bai. Ondarrua izen zan, baiña protesta…
- Zure gazte denporan edo izan zan, ez?
- E?
- Zure gazte denboran edo izen zan, ez?
- Bueno, gaztie… bastante, orduko e… ez dakit ba zemat urte, 25 urte. Ointxe zelebraziñoiek euki dittue /eukitxue/ hor itzelak.
- Eta ze pasau zan orduan?
- Ordun ze pasau zan? Ba, itxurie alkatie pixkat hartu eben bueltan ta alkatie engaiñau eben. Halan esaten eben behintzet. Baiña gero protestak itzelak Berrittun.
- Baiña engañau zetako? Ondarrura sartzeko?
- Ondarrure sartzeko, Ondarrure pasetako. Ta Ondarru, mendiz, Berrittu bera da handixaue, ta Berrittu ipiñi eben barriada modure eta Berrittu su hartute, ernegaute Berrittu. Ta zemat protesta ta zemat… Atzera ekarri orduko denpori pasau zan. Ta hogeta bost urte. Ontxe, ontxe jaixek ein dittue /eitxue/ hor, hogeta bost urte [dila ta]. Atzera Berrittu ekarri eben atzera, ta pozik.
- Baiña zeu jaixo ziñanian Berrittu Berrittu zan?
- Berrittu, bai, Berrittu, Berrittu. Handik urtetara bai. 25 urte ei di.

- Bai, bai, bai.
- Ontxe eon da zelebraziñoi 25 urte, zelebrau ein biher dala ta.

4.3. Garai bateko Berriatua

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/026
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:53:46. **Bukatu**: 00:55:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rey , Ainhoa
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Garai bateko Berriatua deskribatzen du. Tabernak zentralean, Arriolan eta Esuren erretegia zeuden. Gerra aurrean okindegia eta beste bi denda zeuden.

Transkripzioa
- Berritxuko kalia eta zelakua zan? Oin dala oin etxe mordua ein dittue etxe barrixak ein dabe, baiña oin dala berrogeta hamar, hirurogei, larogei urte zelakua zan?
- Bueno pixkat kanbixaute da etxe barrixek ein dabezelako hemen be ez euan lehena be bidi baeuan, baiña etxeik ez euan. Honek etxiok barrixek eindakuk die. Honek daukez hogeta hamabi-hamahiru urte eukitxu, ta hamen be ez zeueon etxerik ta asko kanbixaute dau Berritxu.
- Ta Berritxu ze zan elizia bueltako dana elizia ta…
- Bai elizi ta elizi bueltan ta bai etxik bai, hamen baserridxek edo zenbat ez bai, bai bastante bastante herrixe da hau lehendik be.
- Eta ...tabernarik eta..
- Bai, bai
- Ze taberna zeuazen?
- Ba, Zentrala, Zentrala ta han beheko han behien Arriola. Horrek urtik daroiez, urtik daroiez horrek bixok ta Eguren beste bat, Eguren erretegi. Harek be laga zotsan baiña, oin beste batek dauke, baiña taberna bi edo hiru Berritxun beti eon di. Tabernatik konpleto.
- Eta dendarik baeuan ...
- Dendak bai
- ... dendarik gerra aurrian bai?
- Bai. Gerra aurrian bai dendak. Dendak e, panaderidxe esan dotsutena lehena, ogidxe eitten eban ta panaderidxa esaten jakon hareri ta, beste batean Matxienian edo beste bat, denda bi. Ta beste bat bai hamen, Agustinei hiru denda, hiru denda, dendakin konpletaute euan herrixa.
- Danetik salduko daben?
- Danetik saldu. Bai ta gero jendi plazatik etxera junde, astokin eta datozenak errekadoak ein hamen eta. Ba hiru denda Berritxun. Nik ezagutu dittuaz gaztetatik, hiru denda ta oin be hantxe hiru daz ta gehixei gaiñea.

5. Ohiturak eta bizimodua

5.1. Eskolan euskara debekatua

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/016
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:31:57. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: "Milloi" (Merelludi) auzoan ibili zen eskolan. Euskara debekatua zuten eta euskaraz eginez gero zigortu egiten zituzten. Maistra gernikarra izan zuen. Eskola handia zen eta inguruko baserrietako guztiak batera joaten ziren.

Transkripzioa
--Eskolia, Berritxuko eskolia-ta nun zan?
-Bueno, Berritxure gu, ni neu ez nitzen etorri sekule, hantxe barriadan bertan, Milloin, bertan eskolan.
-Ta nun zan, bertan?
-Bertan, bueno bide zahartxuau baneukan etxetik baña nahiko urrin. Gero jun nitzenin, beste etxea jun nitzenin handik urriñau neuken.
-Zelakua zan akordatzen jatzu?
-Eskolan? Bai. Eskolan ordun euskerarik ez zan ein biher, ta erre ez geinzen, ta euskeraz eitten hatrapetan baginzun errekeo barik, errekeo barik, kastigu. Bai, ta ez geinkixen erderaik ta euskera ein biher, hori be liu zen e!
-Eta maestrue edo maistria?
-Maistri, maistri, maistri, danontzako neska ta mutil maistri, bai.
- Eta nungua da? Kanpotarra?
-Gernikar bat egon zan baña ezin neike esan oin [...] zelan dekon izena. Gernikarra, baiña horixe ez deuket.
- Euskeraz jakingo zeban baiña?
-Bai, bai, bazeixen euskera, baiña orduen haixe, haixe ordenie euen-eta.
-Eta gustatzen jatzun zuri eskolia?
-Bai gusteta jaten, baia urte bixen paseu neban problemeta pasau nitzen, lau reglak pasau nitzun behintzet, maistrik esan osten: “halako ondo zozenin ontxe eskolan ta, penie emote´zte zu bazuztan” beren eskolatik urten biherra-eta, baiña urte neban.
-Eta neska ta mutil eta, danak batera?
-Danak batera, barriadako guztik danak batera, danak leku baten, eskoli bastante handixe zan ta hantxe maistra bataz.
- Zeintzuk joaten ziñazien, han inguruko baserrixetakoak?
-Inguruko baserrixek, danok.
-Milloikoak bakarrik edo beste...?
-Milloikuk bakarrik, Milloikuk bakarrik, Milloiko Milloiko barriadakoak bakarrik, ha eskoli zan Milloiko barriadaku. Aurretik ezeuen, han egon zan maisu zahar bat edo, beste han baserri baten-edo, baiña ez zan hara asko jun, baten batzuk baiña gitxi, lelengo barriadako eskoli haixe zan.

5.2. Eibarren umezain egon zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/018
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:36:05. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Eibarren umezain egon zeneko kontuak. Eibartik Ondarroako "Hotel Comercio"-ra joan zen zerbitzari lanetara. Umezain zegoen tokian etxea garbitu behar izaten zuen. Otorduetan baratxuri-zopa, porrusalda eta arrautza frijituak izaten ziren gehienetan. Kalean asko ibili behar izaten zuen umeekin eta bazituen lagunak ere. Igande arratsaldeetako bi ordu besterik ez zuen izaten jai aste osoan.

Transkripzioa
- Eta umezain-eta ibili ziñen ba umetan.
- Umetan bai, umezain
- Hori askotan gainera
- Bai. Lelengo hamen da gero Eibarren.
- Eta zer ixeten zan, zeu, zer ixeten zan zeure lana? goixian jaiki ta ze ein bihar zendun?
- Ba Eibarren egon nintzenin eurek euken hojalaterixe edo dendi euken, ta juten zan uzaba andrie dendan, ta ni gelditzen nintzen etxin umikin, ume bigaz. Ta eskolara hasten zinin eskolara erun, bata eskolara erun da besti zaindu, ahalik eta eskolarako sasoi allagau arte. Ta, gero umik e, eskolatik hartu, da gero ume bidxekin juten nintzen denda, amana eruten nittun. Ta han emoten dozkun txokolati eta ogixe edo zozer, harek jan hartu ta gero kalera ostera be umikin, ta pozik. Ondo egon nitzen, ondo egon nitzen Eibarren umezain.
- Zu moduko asko egongo ziran, ez?
- Bai lagunek baneukazen. Gero Eibartik pasau nintzen Ondarruko hotel komerziora. Hotel komerzion be egon nintzen. Zerbitzen, mahaidxek zerbitzen.
- Eta umezain-eta, etxietan umiak zaintziaz aparte, bazkarixe ein ta garbittu eta be ein ein biharko zenduan, ez?
- Ez bazkarixe berak ipintzen ban dendan. Etxi garbittu bai e, etxi garbittu bai e. Etxiari pasadi, ohiek ipini ta etxieri pasadi emon. Neuk ein biher ixeten neban. Gero janordu eitzen ban berak e dendan, eberdiku, nik gabeku.
- Bai?
- Bai. Berakatz-zopi ta eitzen, hantxe ixen zan.
- Ze ixeten zan orduan, holako jatorduak-eta, normalian zer ixeten zan?
- Normalian horixe, berakatz-zopi ta, arrautza prijiduk-edo, patata prijidu batzuk-edo. Normal.
- Porrusaldie eta zopak eta holakuak?
- Horixe, Ta eberdixen indiarrak
- Bai e?
- Bai, orduan lentejarik ez dot pentsaten, lenteji geroku da.
-Orduan indiarra?
- Indiarra. Indiarra ta, uzaba andrik berak dendan euken e koziñie barruko partin ta berak ipintzen ban bazkarixe. Hantxe bazkaltzen gendun, da ni

bittartin umezain.
- Eta kalian asko?
- Bai kalin asko, bueno etxin e goixin e ohiek ipini ta da etxieri pasadi emon da horrek ein bir ixeten nittun. Baina gero kala.
- Umia ezta kalian?
- Bai.
- Eta orduan e Eibarren kalian eta giro egoten zan?
- Ondo, ondo bai ondo. Edarto, lagunek baneukezan neure modun umezaiñien dabizenak
- Eta parkian-eta ibiliko ziñazien?
- Bai.
- Orduan Eibarren bazeuan parkerik eta edo ez?
- Parkerik ez dakit ba... parkerik ez dakit ba bauen ordun, kalin, kalin.
- Eta jairik? domeketan be biharra edo...?
- Domeketan be umezain.
- Ez zeuan jairik?
- Atsaldin pare bat ordu-edo zozer eukitzen neban baina asko ez.
- Egun guztia.
- Egun guztidxa umikin, umezain.
- Eta lo be umiaz edo?
- Ez, umiek eurekin entenditzen zin, lo bakarrik, dana bez.

5.3. Bizikletaz ibiltzen zen garaia

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/021
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:48:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rey , Ainhoa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Anaiaren bizikletan ibiltzen zen hasieran eta gero Eibartik erosi zioten emakumezkoentzat eginiko bat. Pasadizo bat kontatzen du. Emakume gutxi ibiltzen zen bizikletaz; berak egindako "falda pantalon" batekin ibili ohi zen.

Transkripzioa
- Eta bizikletiana? Bizikletia esan dozu e ...
- Bizikletia anaiana. Manibela altuaz ta palankiaz, ta hantxe.
- Eta?
- Gero Eibartik ekarri gendun e, bera bizikleta-fabrikan eiten ebalez andrazkoen bizikletik edo, ha politxao zan. Baina aurretik gero baiño gehixa ibili biher izeten neban hortik han Milloittik, Milloittik Markinara jutea atzera. Ta gero behetik hori.
- Igo ein bihar.
- Igo ein biher, ta oinez ezta pentsau be ez e, dana igo.
- Dana igo.
- Dana igo. Baten han Plazakolako errebuelti, bakizu non dauen? Ezta? Plazakolako errebuelti. Plazakola errebuelti, beti han e taillerrin bihargin

ebizenak segidu eitten ostien ta harei eskapao eitten neutsen etorri ta bizkor ein ta jeusi nintzan hankaz gora han errebueltan, ta ez neban ezer ein ta esan eusten: “Ene hartu dozu min bat, geuk lagunduko…” “Alde hemendik e” esan neutsen, alde hemendik zeuegaittik lehen be jausi naz ta, igo notsan bizikletiori, sekula baiño arinago igo neban goiko tontorra. Ederto.
- Orduan emakumiak be, andrazkoak bizikletan gitxi ibiltzen ziran, ez?
- Ba asko ez, asko ez. Baina nik premiñi neuken. Josten ikestera juteko ta.
- Eta? goniaz edo...?
- Ein neban neuk e, neure modun e, tela, halako tela merke bat erositte, halako falda-pantalon bat, ta haretxaz.
- Zeuk eindakoa?
- Bai. Josten, josten nebilen lekun.
- Orduan prakarik eta?
- Prakarik ordun ezebez. Keba, prakak pentsau bez.
- Eta goniaz bizikletan bez?
- Goniaz, bizikletan ha barriaz ezin ibili. Badakizu gizonezkoen bizikletik barra luzi dauke. Prakak bihar. Baiña...
- Orduko bizikletak gaiñera astunak eta haundixak eta izaten ziren.
- Bai, saskarrak.
- Saskarrak.
- Saskarrak. Gero Eibartik etorri giñenian ekarri gendun andrazkoen bizikleti politte. Eibarretik etorri giñenin baserrire. Baiña ha baiño hobi gero kotxi.

5.4. Berriatuko ermitak

- **Hizlaria(k)**: Gandiaga Sierra, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-005/017
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:15:16. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Berriatuko ermitak izendatzen ditu. Zortzi ermita guztira. Urte bukaeran eta arrosarioan ematen zuten meza ermitetan, arrosarioa bederatziurrenean izaten zen.

Transkripzioa
- Esan dozuz ermitta batzuk-eta badarela Berritxun...
- Bai, ermittie San Antolin... Milloiku, San Lorentzo Asterrikeku, ta Madalenaku Madalena, ta han Gorozikeko partin. Ta herrixen beste bi, San Juan ta zera... San Gregorixo. Ta Plazakolako hori be... egoten zan len mezi baiña oin ez da /ezta/. Ta haxe be Plazakolaku be, hauxe torretxun ondoku be Berritxuko ermittie da.
- Orduan, sei edo zazpi ermitta izango ziran.
- Zazpi ermitta. Bai.
- Zazpi? Eta mezarik eta...?
- [...] jai baten horrek zazpi ermittok pasetan.
- [...]?
- A! Oiñez, e.
- Laguntzailea: [...] hori besti Burgoku. Zortzigarrena, ez?

- Zein?
- Laguntzailea: Burgo.
- Burgo?
- Laguntzailea: Bai, [Ondarru ta hemengoxi].
- Zein?
- Laguntzailea: Burgoku besti.
- Burgo, Santakutze? Bai. Santakutz. Burgo, Ondarrutik gora.
- Laguntzailea: Zortzi bat uste dot dizela.
- Eta ermittetan mezarik-eta izaten zan?
- Bai, ee... Hemen [...] eitten dana, haretxen mezi. Ta urte azkenin gero.
- Urtean behin edo?
- Erresarixuen meza bat eta urte azkenin beste bat. Hoixe ohitturan... On bixek eitten dittue... urte azkenin eitten dittue bixek eta ba. Errosarixu lehen beratziurrena izaten zan.
- Bai.
- Beratziurrena ta oin hiru egun.

5.5. Maisu-maistra erdaldunak

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Kerejeta, Marcelina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-006/008
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:09:19. **Bukatu**: 00:11:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Eskolara oso gutxi joan zen. Katonatik eta pizarratik ez zela irten dio. Katona zer zen azaltzen du. Nagusiagotan ikasi zuen gehiago, plazetako osteretan. Maisu-maistrak kanpotarrak izaten ziren; beraiek ez zekiten erdaraz eta irakasle batzuk ikasi zuten euskara apur bat.

Transkripzioa
- Eta eskolia, orduan, esan dozu, denpora gitxi ein zenduala eskolan?
- Eskolan, bai, hoixe.
- Zenbat urtegaz itxi zendun eskolie?
- E?
- Zenbat urtera arte ibili ziñen eskolan?
- Eskolan ibili? Urtik bai e... hoixe. Nik ez naban /enaban/ pasau e... ha pizarri... zelaku izeten zan ha pizarri? Zuek jakin be ez dakizue. Hoiixe ba. Pizarri e... ha zeraz eitten zana... Haxe ta katon zahar bat, ta handixek urten be ezindda. Ta, klaro, gero akabo.
- Katona ze zan ba?
- Katona, ba, halako letra haundi samarrak eukazena ta gaiñin e... halako dibujo batzuk eukazena ta zera. Ta haxe ta ezebez. Akabo.
- Eta eskribitzen ikasi eta...?
- Bai, eskribitzen ikasi... bai... gero. Gero, nagusittutakun ta plaza ostera-ta hasi giñenin ta, pixkat ba e... [...] eukenak hantxe ein ta... ba. Eskolie gero ikesi [geen] pixkat gehitxua, plaza osteran gabizela ta halaku ta honaku ta... ba. Baiña ez eskolan ez asko, e.
- Eta maisu-maistrak edo zeintzuk ziran?

- Bai, harek be ba... hangu, bata Bilboku, gero besti hangu, kanpokuk edo...
- Kanpokuak ziran?
- Bai.
- Baiña euskeraz ez ekixien, ezta?
- E?
- Euskeraz ez.
- Ba, batzuk apur bet hamentxe ikesi ebena ta... zerien ta.
- Ta izenakaz akordetan zara?
- E?
- Euren izenakaz, maistren izenagaz ta.
- Matilde, Matilde be bai batek baeban ta... Oin akabo, urte asko da ta zelan akordauko [...] ba! Hoixe. Ez.
- Orduen euskeraz-eta eitten zenduen eskolan zeuok?
- E?
- Euskeraz eitten zenduen eskolan?
- Ze eingo gendun ba? erderaz? Hoixe!
- Baiña maistriaz -ta zelan eitten zenduen?
- E?
- Maistriagaz ta?
- Ba maistrik [berak ein deixala] erderaz, guk ez bagenkixen berak be... halakoxi ekarri, maistrie euskaldune ekarri.
- Derrigor.
- Ia! Nok jakingo eban ba? Horrek oingoxe zerak gauzak di e... erderaz ta halako ta honako ta... lehena ez euen holakoik e.

5.6. Arroparik onena komulgatzeko

- **Hizlaria(k)**: Elordi Egurrola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRT-010/010
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Lehenengo jaunartzeko eguna oso egun handia izaten zen. Abadeak María gailetak ematen zizkieten elizkizunaren bukaeran. Ahal izanez gero traje edo soineko berriarekin egiten zuten lehen jaunartzea. Abadeak arropa onenak janzteko eskatzen zien komulgatzeko.

Transkripzioa
- Lehen kumuniñoa be danok batera eitten zenduen?
- Bai, umik bai, gaztik, umik, eskolan ebizenak, danok batea.
- Ta zelako egune izeten zan? Oin egun handixe izeten da ta…
- Egun haundixe ordun be.
- Bai?
- Bai, kumuniñoie eta, gaiñea, lelengo kumuniñoie zan egunin ta. Ordun be fiesta haundixe.
- Eta zer jana, jatekoa eta eitten zenduen bertan?

- A ez, jateko... geuk ez gendun ein iñoz aparteko fiestaik. Abadik ekarten oskuzen honek Maria edo… galletak, haretxek. Abadiek elixatik, mezie amaitzen zanin, abadik ekarten oskun haxe, ostontzin beste funtziñoik ez gendun... Etxin [zeoze] eitten ebanak, baiñe normalin [...] izebez.
- Eta zelako erropak-eta komuniñorako?
- Erropie ahal danik onena, ta lelengo behintzet ba euren trajie barrixe ta… Lelengo kumuniñoie ein zebanak be, orduntxe ahal bazan barrixe trajetxu edo dana dala. Andrazkuk be euren erropi barrixe ahal zala kumuniñoie danako. Abadik be esaten oskun komulgeta juteko erropaik onenakin. Abadian kontseju ha izeten zan. Gu haxe beti, ahalegiñe ein ezinde beti; gu edo, gure gurasuk.
- Eta zein izeten zan erroparik onena ba?
- Ba ordun be… bata besti baiño hobetotxua bizi izeten zan ta… Hari begire eskas eukenak, ta bestie harro.
- Domekatako erropak zeintzuk ziren?
- Domeketako erropak, korrientetxuauek komuniñokuk baiño. Lehen esan dotena /esaotena/, erropaik onena komulgau biher zanin; medianotxuaue domeketako meza korrienti zanin.
- Ta ze, zelako… abarkakaz ez ziñen joango?
- Ez, ez, zapatillatxuk; bai, zapatillak. Beti ahal gendunin zapatilli edo zapatilli, beti abarkatik eta goraku.
- Zapatilla askorik ez zenduen eukiko?
- Ez, zapatillak, sandaliak zin ordun, praille… karmeliten antzekuk, honek punta librik eta. Zapatero zerak… zin ordun... zapatillak.
- Sandaliak?
- Sandaliak, hori, sandaliak.

6. Aisia

6.1. Berriatuko San Gregorio jaiak

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/019
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:41:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Berriatuan San Gregorioetan eta San Pedroetan izaten ziren festak. Soinujolea izaten zen eta baltseoan aritzen ziren dantzan. Dantza lotuko pasadizo bat kontatzen du. San Gregorio egunean Ondarroako banda joaten zen Berriatura.

Transkripzioa
- Eta, hemen Berritxun-eta jaixak-eta, zeintzuk zin lehen e hamen holan e, herrixen.

- Lehen e herriko jaixe San Gregorixuk, ta oin be bai e, San Gregorixo ya San Pedro. San Pedro asko ez, San Gregorixuk gehixa.
- Noiz da?
- San Predo izaten da “veinti nueve” de junio, hogeta bederatzi erderaz sartu na oin, ekaiñan hogeta bederatzidxen San Pedro egune. Haixe zan “patrón de” Berritxuko patroie haixe da, San Pedro. Gero San Gregorixo ixeten da maietzan bederatzidxen. Ordun jaidxek San Pedro egunien baiño handixauak bertan eitten di, iñun ez dalez jairik egoten ordun, Berritxun, jaidxek.
- Eta, jai handidxa eitten zan lehen? zure gazte denporan-ta?
- Bai, gazte denporan bai.
- Bai e?
- Handik e, Milloin bixi giñinak handik etorritte.
- Eta zer ixeten zan?
- Ba kordeoie.
- A bai e?
- Kordeoi eta, dantzan ei ta...
- Baltsa be bai? Holan e baltsiua.
- Bai bai, batzuk bai.
- Baten akordetan naz ointxe, barre eingo dau baten bateko hori entzuten dabenin. Baten akordetan naz, gu han egoten giñen neska kuadrili ta, tangu joten hasi zin. Tangu joten hasi zin ta: “Damiana hauxe ein /bieu/ biher dogu”. “Ba nik hori ez dot ein sekula ta ni ez noie hori eittea”. “Ba nik pentsetan dot zeuaz eingo dotela ba”. Ta, “etorri, ein /biu/ biher dogu bixok, tangu”. Asko gustetaten dantzan eitxi, baiña tangusekule ein barik neuen ta. Ta “bai bai, bixok ein /biou/ biher dogu”. Hori zan Eskibarreneko Adri, esanda oin e, esanda bardin da, ezta? Adri zan, berak be ondo ekixen dantzan. “Zuk laga neuri solte pixkat da /eingou/ eingo dogu”. Primeran ein gendun. Neuri be gustau be asko eitten jaten dantzan eitxi.
- Ta jaidxetan ze ixenten zan gehixen bat dantzia ta...?
- Dantzi.
- Besterik egoten zan?
- Bueno, besterik e, ez dakit ordun e, gauza handirik ez. Lehena, nire gazte denporan e, gauza handirik ez.
- Jendia inguruko herridxetatik-eta etorriko zan.
- Bai bai bai. San Gregorixo egunin batez be gehixa, San Pedro egunin baino gehixa.San Gregorixo egunin herridxetatik. San Pedro egune ixetan zalez, Barinagan be, Barinagan hor Markiñatik harutz, han be jaixe izeten zan da, San Pedro egunin baino San Gregorixo egunin jente gehixa. Ondarrutik eta bai jenti etortzen zan, bandi etorten zan Ondarrutik. San Gregorixo egunin jente asko etorten zan. San Gregorixo eitten zan lehena, on baiño askoz gehixa.

6.2. Elgoibarko bertso eskolaren sorrera

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/031
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:46:49. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Elgoibarko Izarra elkartean sartu zenean,
  `Etxegiña´ bertsolariaren omenaldia prestatzen hasi ziren.

Antton Aranburuk eskatuta artikulu bat idatzi zuen `Etxegiña´ri buruz, hark asmatutako salbea aipatuz eta abar. Omenaldiaren harira, bertso-jaialdi bat antolatu zuten eta, geroago, bertso eskola sortzea bururatu zitzaien. Loritoneko pareko lokal batzuetan jarri zuten bertso-eskola. Orduantxe sortua zen bertso-eskolen mugimendua. Inguruko herrietako bertso eskola eta orduko bertsolari gazteak.

Transkripzioa
Izarran sartu nintzen ni, gogoratzen naiz, ordurako Andres-eta ere bazeuden. Eta hor `Etxegiña´ Santa Ageda eskean ibiltten zen bat zegoen, Sebas Larrañagaren aitttitta, `Etxegiña´, eta harek ba egitten zittun bere... Santa Ageda eskian kalez kaleko kantaldiak eta abar. Eta omenaldia egin bihar zitzaiola eta omenaldi zererako Antton Aranburuk esan zidan: “HI, idatzi zak artikulo bat periodikuan honen omenaldia dala eta zelan berak asmatuak diran salbia eta abar”, kantatzn dana: "Jangoikua... larala...." salbe hori, hemen hiletetan kantatzen da salbe hori. Eta urte hartan bertan, 80an, egin gendun omenaldi bat `Etxegiña´ren erretiroa zala eta, bazihoalako. Eta gero, orduan, pentsatu gendun: eta zergaitik ez honekin batera jaialdi bat? Ta omenaldi hartarako bertso jaialdi bat ospatu zan. Lehenenengoa uste dot Gabonetan izan zala. Eta gero ya Trinidadeetan, Trinidade jaixetan, urtero egiten zan. Eta bururatu zitzaigun bertso-eskola bat sortzia. Eta ni prestatu nintzan bertso-eskola... klasiak emateko. Eta ematen genduzan hor Lorito ondoko lokaletan, Lorituaren aurrez aurre, beste partian dagon horretan lokal batzuk zeuden, gaur egun loradenda dagoen horren goiko partian, hor lokal hoietan. Txistulariek ere erabiltzen zuten gela hori euren ensaioak egiteko eta nik ere hantxe eman nituen lehennego bertso zerak, bertso-eskolako... Ordurako ya hasitta zegoen bertso-eskolako mobimentua. Elgoibarren baiño lehenago hasitta zegoen Eskoriatza, Aretxabaleta... Almen inguruan, hor Sarasuatarrekin eta horrekin. Patxi Goikolea zan horko buru. Ta horrekin ta Isazelaia ta Arantza Loidi eta abar, bazeuden gaztetxoak. Eta geu ere hara juten hasi giñen. Hemen Elgoibarko Izarrako arduradun orduan Irigoien bat zan –oin, ez dakit, kanpuan bizi dan bat– ta harekin ta abar. Ta juten hasi giñan hara. Eta baita Zumaiara ere, Juanito Dorronsorokin batera. Jon Maia ta horrek mutikoak ezagutu nittun nik; bai Euzkitze ere, mutikoa zala ezagutu nuen nik. Euzkitze ta Sarasua eta Felix Iñurrategi mendian hil zana ere bai eta... Horrek bertso-munduan ibiltzen zian.

6.3. Elgoibarko bertso eskolako saioak, txapelketak...

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/032
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:52:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Bertso eskolara haur asko apuntatzen zirenez, bertso herrikoiak ikasten zituzten haurrekin. Bertso saioak eta bertso-paper lehiaketak egiten ziren urtero. Jaialdiak.

Transkripzioa
Urtero halaxe. Astero klasiak eman. Pasatzen dana, klaro, ez gendun mugarik jartzen. Ta, orduan, jente asko apuntatzen zan ta askotan bertso-eskola baiño gehiago guarderia bihurtzen zan. Esan nahi dot umiak danak... eta danakain bertso-mundua... Ta ze eitten gendun? Ba kantuak ikasi. Zeranak, Bilintxek kantatu zittuenak, “Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe” eta bestea eta... edo Txirritak kantatutako besteak eta... holan, bertsoak ikasi eta ikasi. Gero, gaiñera, Dorronsorok urte horretan talde bat alkartu giñan komeni zalako bertsoak ataratzia bere musika eta guzti, herriko tradizioan zeuden bertsoak, memorian zeudenak, eta baita ere Antonio Zabalak Hauspoan bildutako hoiek eta. Hoiei musikakin eta abar jenteak, umiak, bertso-eskoletan erabili zezaten. Eskolaz aparte, ikastolaz aparte, bertso-eskolak zeuden herrietan. Eta hemengo arduraduna neu izan nintzen 80tik 90era. 90ian beste batek hartu zuen ardura. Baiña 10 urte hoietan urtero eitten gendun umeen bertso-saio bat Herriko antzokian. Eta gurasoak biltzeko biderik onena umiak kantuan ipinttia da eta orduan aretoa bete egiten zan. Eta bertso-saio baten ondoren bertsoak etortzen zian: igual, Lazkao Txiki eta abar eta Lazkano eta beste batzuk etortzen ziran. Eta umeek ere euren saioa egiten zuten. Eta holaxe eitten gendun, urtero-urtero eitten zan hori. Eta gero ya instituzionalizatu egin zan hori eta urtero dago bertso jaialdi bat Elgoibarko Izarrak antolatzen duena, baiña jatorria hortxe dauka horrek. Hor hasi zan, Elgoibarko Izarrarren ekintza bat bezala, hasiera hartan neuri tokatu zitzaidana aurrera eramatia. Eta gero lehiaketak egitten ziran, bertso-paper lehiaketak, eta sariak banatzen ziran jaialdi horretan eta hoixe zan egiten zana. Baiña orduan ez zan hemengoa bakarrik, e! Euskal Herri guztian zabaldu zan hori, bertso-eskolen mobimentua, eta ikusi da, gaiñera, leku askotan frutu handiak eman dituela, gaur egunian goi-goian dauden bertsolari hoiek bertso-eskoletakoak direlako.

7. Euskara

7.1. Berriatuko eta inguruetako euskara

- **Hizlaria(k)**: Gojenola Maguregi, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRT-004/028
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:55:53. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Rey , Ainhoa
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Berriatua, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku eta inguruetako euskararen inguruko kontuak.

Transkripzioa
- Eta, euskera aldetik eta, Berritxuko euskeria ta inguruko herrixetakua-ta diferentia?
- Oso diferenti.
- Bai e?
- Oso diferenti. Juten bazara Lekitxora, puff. Ta Ondarru Ondarruku bai. Derrepente ezagutzen da ondarrutarra zein den.
- Bai, …

- Ta Ondarrutik Mutrikura barritz hondiño saltu handixaoe, ta Lekitxora, bua, Lekitxon, on Markiñako ta Berritxuko pixkat itxura gehixao dauke.
- Bai e?
- Bai
- Zer da, Berritxukoa zer da gehixau Markiñakoa gehixau Ondarrukua baiño?
- Bai. Markiña eta Berritxu neure neutzako itxura gehixa dauke Ondarruku Ondarruku eta Lekitxoku baiño.
- Eta bestekaldekoak Aillusti ta ...
- Aillustikuak ba ez jako hainbeste igertzen beti pixkat bai igerten jako, ezta? Pixkat bai igertzen da, baiña diferente gutxi. Gero, Amoroto be bada hor baiña Amoroto Berritxuko antzera.
- Eta Eibarren-eta?
- O! Eibar diferenti, erderi asko sartute. Eibar diferenti baiña jende maju da eibartarra e.

7.2. "Abarrak" liburuak euskara batura egokitzen

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/020
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:29:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
  Euskara » Euskararen historia
- **Laburpena**: Elgoibarko Ikastolako Elkarteak, euskarazko literatura sortzeko eskatu zion eta Kirikiñoren Abarrak liburuak euskara batura egokitu zituen.

Transkripzioa
- Elgoibarrera etorri nintzenean, irakasleen elkarteak, hemengo ikastoletako irakasleen elkarteak eta, esan zidaten “zegaittik ez dozu zerbait euskeraz egiten?”. Ta orduan, hain zuzen ere, `Abarrak´ 1 eta 2, `Abarrak´, Elgoibarren neguala, honeek bixak, `Kirikiño´ren `Abarrak´, ipuiñak eta irakurgai errezak, estilo hontakoak, aditzen dozu? Umeentzako egokiak direnak, eta `Abarrak´ izenakin, `Kirikiño´k - Ebaristo Bustintzak - egindako bi liburuak, e, bai, euskeratu gendun, proposatu nuen e... Ez, hobeto esateko, lagun batek esan zidan “Zergaitik hoiek ez dittuk euskera batura pixkat egokitzen?”. Ta halaxe atara nittun hau berau mila bederatzirehun ta larogei ta batian. Ia oindiño artian Elgoibarko ikastolan neguan. Gero e... ikastola... gero institutura pasatu nintzan e... larogei ta bitik aurrera, jubilatu arte, institutuan jardun genun, ba, hor ere testugintzan ta holako gauzatan. Baiña hau liburuau marrazki aldetik eta oso marrazki politakin ta oso ondo egindako liburua da hau. E? Eta irakurgai errez-errezak, hau da, euskera batua. `Abarrak 1´, `Abarrak 2´...
- Zeuk euskera batura pasau zendun hori...?
- Bai, bai, bai eta Elgoibarko ikasleei dedikauta ta bukaeran egin nuena izan zan esamoldeak, euskerazko jatorrizko zerak, esaerak eta abar, bildumatxoa, atzean.

7.3. Euskaraz ikasteko ilusioa zabaldu nahi zuten

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/023
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:31:34. **Bukatu**: 00:33:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararekiko sentimendua
  Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- **Laburpena**: Euskarazko esamoldeak batu zituen Abarrak liburuetan. Ikasleei ahalik eta euskara aberatsena eskeini nahi zieten.

Transkripzioa
Hemen, uste dot hementxe zeudela honeek eee... esamoldeak. A, hemen daoz, beittu, beittu. Bukaeran beti jarritta, ipuin bat... bakoitzean ikusten diren esamoldeak, e?

“Nondik eta handik”...“Nondik edo handik”, eta “Bota behar zituen gibelak”, eta “Korrika hasi zan” esan beharrean, ba “Ariñari eman zion” ta “Leloak halakoak” (“Tonto de él”). Ta esaera – esamoldeak-, euskerazko esamoldeak, jenteak gogoan hartzeko ta erabiltzeko bildumatxo bat egin nuen bukaeran, ipuin bakoitzari zegokiona, ta orduan hauek ere hortxe, hortik, datoz.

Ta ikusten denez, ba, nahi dana da aurrean geneukan ikasleari euskera ahalik eta aberatsena, eta Euskal Herrian erroak zituen zera, hizkuntza eta mundu ikuskera bat, zabaltzeko ahalegiña [ez gendun /ezkendun/]... Ez dakit lortu gendun. baiña saiatu egin giñan, eta akatsak egingo genittuen, seguru asko, baiña izpiritua hori, hoixe, zan: esan nahi dot ilusioa. Ez, guretzat klaseak – eskolak- emotera joatia ez zan lana, baizik eta erreto bat, ze, erronka bat, e? Egin daigun hau, eta umiak gustora joan daitezela etxera ta abar ta abar, ta hoixe hoixe zan orduan, bai, esan nahi dut.

8. Politika

8.1. Guardia Zibilaren bisitak ikastolan

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/011
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Guardia zibilaren bisitak Eibarko ikastolako lokaletara. Kuartela, Zezenbideko lokalaren parean zegoen. Behin Urkiko lokaletan agertu zen guardia zibila.

Transkripzioa
Kurioso bezela, ba, orduan, karo, Zezenbiden bertan ere ba guk Guardia Zibilen kuartela bertan aurrian geunkan eta, bueno, han mobitzen giñan. Seguru asko bijilatuak egongo giñan. Bueltan, ni Ermutik eta Hambre

aldetik-eta juten nitzan etxe aldera eta iñoiz Guardia zibilak "alto" eta abar, ta begiratzen, eta "¿De dónde vienes?" eta "¿Qué llevas? eta halako gauzak eta. Behin gogoratzen naiz, zeozer graziosua izan zan, eskatu zidan karneta ta guardia zibil batek irakurri zuen eta besteari "Oye, mira qué apellido lleva éste, Ugarteburu Meabebasterretxe...", eta nik leihotik "Es un topónimo" esan nion, eta holan beittu [bera] eta "¿Qué dice?", "Que es un topónimo". Holan beittu zion bestiak eta "Siga usted adelante, siga usted". Ta harek seguru asko pentsauko zuten, ba, insulton bat edo, badaezpadan, ez zien atrebidu... Bai, halakoxe kontuak, bai. Ta, ba, holan. Han egon giñen zerien eta gero beste egun baten, hori bai, etorri be egin ziren bi guardia zibilak bi pareja hara, Urkiko eskoletara. Ze guk orduan, geuk eitten gendun ee... ez euan libururik. Ein kontu, pentsatu, gerra aurreko Manuel Lekuonaren liburuak eta holako gauzak, eta bai, Federazioak ataratako apunten batzuk-eta bazeuden, baiña guk geuk sortzen gendun geure materiala, ipuiñak eta istorioak eta abar eta abar. Eta haintxe neuzkan mutillei banatzeko, eskolan neska-mutillei banatzeko, apal baten gaiñian. Eta guardia zibila etorri zan bi pare... pareja bat etorri zan, bikote bat, eta esan zigun "A ver qué es lo que tienen", eta ikusten eta "¿Esto qué es?" eta "Este es el material que se usa para leer "Ah, ¿sí?" ta tal. Bisita euki gendun ikusteko ia propagandarik-edo ze rollo zeuan, etorri zan behin guardia zibil parejia, e, baiña ondo, beste problema barik juan zan.

8.2. Francoren heriotza eta Ikastolen goradakada

- **Hizlaria(k)**: Ugarteburu Meabebasterretxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: BRT-035/034
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 00:57:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Elgoibarren immigrazioaren ondorioz euskara asko galdu zen eta euskara ez zen normaltasunez transmititu. Frankoren heriotzarekin, izugarri hasi zen ikastolaren eskaera. Metodologia berriak, testuliburuak...

Transkripzioa
- Baiño Elgoibar bera ere nahiko berezia baita. Ze hor immigrazioaren ondoren, 1950etik 60ra euskera galdu egin zuen jente askok herrian. Euskera etxian ez zan... iritsi zan momentu bat ez zala transmititzen. Hori frankismuaren eragiña izan zan.
- Zu hona etorri ziñanian ze giro topau zendun hemen?
- Hona ya... Bai, 75ian ya...
- Ya hobia zeuan.
- Klaro, ya ni etorri nintzenian, Franco hil zen urte bera zen ni hona etorri nintzenian, eta mobimentu... bai, gogorra zegoen. Esan nahi dut, bateko heriotzak, ETA zala, atentauak zirela, kartzelak zirela, manifak zirela... mobimentu bixi-bixia zegoen, bere alderdi on eta txarrakin.
- Baiña ordurako euskerian egoeria hobetxua zan.
- Hobeto, behetik gora zetorren eta. Klaro, Eibarren ikusten genduna: ikastola lehenengo 40, hurrengo urtian 80... biderkatu egiten zan. Ez... Batuketa barik biderketa gertatzen zan. Urte batetik bestera izugarri hazi zan demanda hori, jenteak nahi zuelako... ikastolak bazekarren, gaiñera,

inobazio puntu hori, ezta? Eta ikastolan sartzen zan jentea ere, ba, ya prestatua zalako, ta metodologia berrietan, pedagogia berrietan... Eta, orduan, bai, ikusten da zera: herri-eskolak eurak ere, ba, gero eta gehiago, ba, jente euskalduna sartzen hasi zenez, ba, euskera hezitzeko eta euskerazko testu-liburuak eta gero eta zabalago zebiltzan. Eta alde hortatik, ba, mesede egin zuen ikastolak herri-eskolak ere ildoan sartu zitezen.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ameriketara artzain 31 urterekin (BRT-003/002)

Ameriketara 31 urterekin joan zen eta bertan artzain hasi zen. Bertako bizimoduaren inguruan hitz egiten du. Hasiera oso gogorra izan zela dio. Lehenengo inpresioan, elkarrekin hobeto konpontzen zirela iruditu zitzaion.

2. Ameriketan ardien albaitari lanetan (BRT-003/003)

Aste Santuan hemen bijilia egiten bazen ere, Ameriketan ez zen haragia besterik jaten. Albaitari lanak egiten ikasi zuen eta hartan aritu zen. Dirua ondo irabazten zela dio.

3. New Yorken eraikuntza lanean (BRT-003/005)

Ameriketan igaro zituen urteetan pasa zituen tokiak izendatzen ditu. New Yorken 6 hilabete egin zituen eta eraikuntzan aritu zen lanean. Lo egiteko arazoak izaten zituen hegazkin ugari ibiltzen zelako.

4. Wyoming-en meatzeetan (BRT-003/006)

New York-etik Wyoming-era joan zen meatzeetan lan egitera. Han zegoela palaz jokatzen aritzen ziren eta erakustaldiak ematen zituzten. Mekaniko eta garbiketan hasi zen meatzeetan lanean eta gerora gaueko lana egitera pasa zen, trenak kargatzen; diru gehiago ordaintzen zioten. Harri zuria lantzen zuten, xehe-xehe eginez.

5. Ameriketan artzain bizimodua (BRT-003/008)

Artzain ibili zeneko bizimodua kontatzen du. Erditzeen ostean, Nevadan pare bat hilabete egiten zituzten eta, ondoren, mendi handietara joaten ziren. Mendian eta desertuan binaka egoten ziren, bata gurdian eta bestea ardiekin.

6. Ameriketan artalde handiak (BRT-003/009)

Artalde handiak izaten zituzten Ameriketan, mila buru ingurukoak. Bikiak eta bakarrak aparte eramaten zituzten.

7. Ameriketan ardiekin mendian (BRT-003/011)

Nevadara artzain joan zenean, egun osoa hotzetan pasa behar izaten zuen ardiekin; sua egin eta mendian egoten ziren. Behin mendi altuetan ardiek pasatzerik ez zuten tokia suertatu eta bizkarrean banaka-banaka pasa behar izan zituela dio. Zenbait menditan hiru hilabete pasatzen zituen eta neguan behera jaisten zen. Erditzeetarako barrura sartzen zituzten.

8. Artzaintzaren alde gogorra Ameriketan (BRT-003/013)

Artzaintzaren alde gogorra Ameriketan. Mendiko artzaintza lanean elurra, hotza eta bide luzea oinez egin beharra ziren Jazintorentzat alderik gogorrenak. Ehizan aritzen zen, otsotan eta.

9. Artzainak herrian elkartzen ziren lagunekin (BRT-003/014)

Artzainak eta beste lagun batzuk herrian elkartzen ziren. Berarekin artzain egondako gizon baten aipamena egiten du; Jazinto bera baino tabernara joan zaleagoa zela dio.

10. Oregongo otsoak eta pumak (BRT-003/016)

Oregonen otso ugari egoten zen, baina ez ziren ardientzat pumak bezain arriskutsuak. Jazinto pumak ehizatutakoa da; saria ematen zuten. Hango basoko behiak ehizatzen zituen, eta ardi zuri basatiak ere bai. Pumek ardiei odola zurrupatzen zieten eta hil; gau bakarrean asko. Hilean hogei otso inguru hiltzen zituen, ugazabak eskatuta.

11. Etxera bidean, lapurra (BRT-003/019)

Etxera bidean, lapur bat izaten omen zen bidean, baina bera beti mendiz joaten zenez, ez zitzaion inoiz irten. Lapurra beti egon izan dela dio.

12. Basoilo txikiak eta usoak ehizatzen (BRT-003/021)

1939an etxe ondo guztian habanako oiloak (basoilo txikiak) agertu zirenekoa kontatzen du. Aitak eta aititak ehizatu zituzten, tirorik bota gabe. Usoak ehizatu zituztenekoa ere gogoan dauka.

13. Martxoan pasatzen ziren txoriak (BRT-003/023)

Martxoaren 5etik 10era bitartean txori txikiak pasatzen ziren: pintxoia (txonta arrunta), jilgero (karnaba), kalandra (hegatxabal arrunta) eta beste. Erroibeltza (erroia) eta piko horia (belatxinga piko horia) ere pasatzen ziren, baina jateko ez direla onak dio.

14. Karnabak eta usoak harrapatzen (BRT-003/024)

Karnabak harrapatzen ibiltzen zen likarekin. Apirilean uso txikiak eta kabilarak (gabiraia) pasatzen ziren. Uso txikiak banda txikietan pasatzen ziren. Usoak lehen hiru mota egoten ziren. Uso tortola (usapal) banda handiak pasatzen ziren. Pozoia zabaldu denez bazterretan, txori asko galdu dela dio.

15. 1981 inguruan txori asko (BRT-003/025)

Durdula harrapatzen zuen amuarekin. Neguan ehizan ibiltzen zen median, etxera joateko astirik gabe. Elurteetan harrapatzen zituen. Oilagorretan ibili zenekoa kontatzen du; 1981 inguruan txori asko izan zela dio.

16. Ahate banda handiak itsasoan (BRT-003/026)

Ahate kontu askorik ez dakiela dio. Zerzeta (zertzeta arrunta) jateko ez dela gozoa dio, baina beste koloretsu bat aipatzen du, jateko primerakoa. Itsasoan abenduan ahate banda handiak egoten ziren, eta bestelakoak ere bai: zerzetak, hankahoriak, kuliskak (kurlinta handiak)...

17. Basakatuak eta erbiak harrapatzen aita (BRT-003/029)

Bere aita ilargi betea zenean, basakatuak harrapatzen ibiltzen zen. Baserriz baserri joaten ziren diru eske. Larrua saltzen zen. Erbia ere harrapatzen zuen aitak akuiluarekin. Bizimodu aldaketa egin zenean galdu zirela dio.

18. Bizikletaz Markinara kosten ikastera (BRT-004/005)

18 urte bete zituenean, gerra hasi zen. Gerra amaitu zenean, josten ikasten hasi zen Markinan, eta bizikletaz joaten zen. 10 hilabete egin zituen; eta, gerora, josteko makina erosi eta bere kontura inguruko baserrietako joste-lanak egiten hasi zen.

19. Esnea saltzera etxez etxe Ondarroara (BRT-004/012)

Baserrian esne-behiak zituzten eta esnea Ondarroan saltzen zuen ia egunero. Negu baten 100 litro saldu zituztenekoa kontatzen du. Etxerik etxe joan eta alfonbra azpitik giltza hartu eta bera sartzen zen etxera batzuetan. Marmita handietan eraman eta litroko ontzi batekin banatzen zuen bezeroen ontzietara esnea.

20. Bataioak (BRT-005/002)

1912ko Santo Tomas egunean jaio zen, Berriatuan. Hurrengo egunean bataiatu zuten. Umea goizean jaioz gero, egunean bertan bataiatzen zuten, eta arratsaldean-edo jaioz gero, hurrengo egunean.

21. Kofradiako ermita eta Berriatuko eliza (BRT-005/004)

Kofradiako ermita auzoan zuten baina eliza nagusia Berriatuan, bataioak-eta elizan egiten zituzten. Mezara Berriatura joaten ziren, noizean behin Astarrikara ere bai.

22. Elizburuko baserriak (BRT-005/006)

Elizburu auzoko Ibarreta baserrikoa da. Hiru baserri daude baina sei etxebizitza. Baserri izenak aipatzen ditu, baita inguruan hutsik edo desagertuta dauden baserrienak ere.

23. Baserri munduko aldaketak (BRT-005/007)

Aldaketa asko nabaritu ditu baserri munduan. Erraldea, bost kiloko ganadua zen eta erraldeka saltzen ei zuten ganadua. Lehenago garia eta artua ere egiten zuten. Ogia ere astean behin egiten zuten labean.

24. Sagarrondo ugari Elizburun (BRT-005/008)

Elizburuko ingurua asko aldatu da. Pinu kontua berria da. Lehenago sagar piloa zegoen. Urtean behin ematen zuen fruitua eta bi hiletan batu behar zen. Saldu egiten zuten. Lan asko ematen zuen

25. Pago-egurra sutarako. Sastaia zelan egin (BRT-005/009)

Pagoak ere egoten ziren basoetan, sutarako egur bezala erabiltzen zuten. Otea ere zuten. Sastaia ere egiten zuten simaurretarako. Sastaia nola egiten zuten azaltzen du.

26. Eskola ostean ganadua zaintzen (BRT-005/011)

Noizean behin feriara joaten ziren ganadua saltzera. Eskolara joateko ordubetez ibili behar ziren. Eskolara goizez joan ostean ganadua zaintzen egoten zen beste egun erdia. Gau-eskolara ere joan zen bi urtez. Lehenengo jaunartzea hamar urterekin egiten zuten.

27. Berriatuko baserri batean morroi (BRT-005/012)

Berriatuko baserri batean egon zen bizitzen zortzi urtez bertako familiarekin.

28. Zapaturo bizarra moztera (BRT-005/013)

Zapaturo bizartegira joaten ziren bizarra moztera eta ostean karta-jokoan aritzen ziren, eguerdiko ordu biak arte-edo.

29. Baso hutsak (BRT-005/015)

Basoak hutsik zeuden ez zegoen ez pinurik ez arbolarik. Idiak zeuden asko alperrarrian aritzeko. Sagarra baino ez zegoen.

30. Berriatuko jaiegunak (BRT-005/018)

Auzoetako jaiak aipatzen ditu. Erromeria ere izaten zuten, inguruko jendea ere joaten zen

31. Inguruko herrietako erromerietara (BRT-005/019)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Amorotora, Lekeitiora... Domeka arratsaldetan erromeriara joaten ziren Amorotora eta Astarrikara, Berriatura gutxitan joaten ziren.

32. Madalenako tabernara asto-gurdian (BRT-005/021)

Han inguruan ez zegoen tabernarik. Madalenan taberna bat zegoen. Asto-gurdian joaten ziren 8-12 pertsona bertara bazkaltzen.

33. Idi-probak eta gizon-probak (BRT-005/022)

Idi-probetarako, harria jasotzen eta gizon-probatarako ohitura asko egon da. Gizon-probatarako sartzeko 4 pezeta inguruko sarrera ordaindu behar izaten zuten. Idi-probetan ibilitako herritar batzuk aipatzen ditu, bere aita tarteko,"Perran". Gerraostean, berak berriro ekarri zituen idiak etxera.

34. Idiak entrenatzen (BRT-005/023)

Idiak zituzten etxean. gerraostean berak berriro jarri zituen etxean. Idiak Asterrika bidean entrenatzen zituzten. idiak zelan entrenatzen zituzten kontatzen du.

35. Idi-probetako apustuak. Idientzako lastoa eta baba (BRT-005/024)

Apustuak zelan egiten ziren azaltzen du. Herri gehienetan egoten ziren probak. Garrantzitsuenak Gernikan urrian ospatzen zirenak ziren. Idiei baba eta lastoa ematen zien jateko, barazki gutxi. pisu gutxi hartu eta indartsu egon daitezen. Orduan babak laurogei zentimo balio zuen, pezeta bat baino gutxiago.

36. Idi-probetarako pisua eta tranpak (BRT-005/025)

Idi-pareak mila kilo izan behar zituen. pisu horretara heltzen ez baziren karga jarri behar zitzaien, hondarra jartzen zitzaien. Jendeak harrian labaintzeko xaboia erabiltzen zuen, horrekin gertatutako istorio bat kontatzen du, Jabonero ezizena jarri zioten gizonarena.

37. Ahari-topeka (BRT-005/027)

Ahari-topekak ere egin izan dira. Auzoko batek kokotean jo eta hezurra ere apurtu zuen. ahariak pentsu gutxiago behar du, asko ibili behar du ahariak.

38. Baserriko eguneroko lanak (BRT-005/029)

Segarekin belarra ebaki, belar sikua... beti lana zegoen baserrian. Ganadua kortan egoten zen normalean, esnea batzeko han egon behar ziren. Ganaduarekin eguneroko lana zelakoa izaten zen azaltzen du: alperrarekin lurra zapalduz, goldea...

39. Artoa lantzen (BRT-005/030)

Arto asko egoten zen bere gazte denboran. Arbia eta garia ere izaten zuten. Artoa maiatzean ereiten zen eta urrian batu. Artoaren prozesu guztia azaltzen du, ereitetik jorratzera. Emakumeek batzen parte hartzen zuten. Artaburuak landu eta ganbaran gordetzen zituzten.

40. Artaburuak eta arto-garauak (BRT-005/031)

Artoa heldu egin behar da, zuritzeko moduan. Prozesua azaltzen du. Artaburuak zuritu eta ganbaran gordetzen zituzten garauak. Askaurrean zuritzen zituzten, etxe bakoitzak berea egiten zuen. Tartean arto-garauz betetako otzara batekin eta teilatuarekin lotutako anekdota bat kontatzen du.

41. Sagardoa egiten zuten (BRT-005/032)

Gerraostean sagardoa egiten hasi zen. Eskuzko dolarea zuen, eskuz eraginda jotzen zuen, barra batekin estututa. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du eta botilaratzekoa ere bai. Etxerako baino ez zuten egiten eta urte guztirako izaten zuten. Auzoko batzuek ere egiten zuten. Txakolina auzoko batek egiten zuen.

42. Sagardo-sagarra (BRT-005/033)

Sagardo-sagarra erabiltzen zuen sagardotarako; bi sagar mota aipatzen ditu horretarako. Botilarako, ostera, urdin-sagarra da onena, edalontzira botata bits asko ateratzen du.

43. Sagar motak eta etxeko frutak (BRT-005/034)

Jateko bostkantoi sagarrak, urte betea eta errege-sagarra (erreineta) zien ugarienak. San Frasko sagarra biguna da, ez da ona, sagardo zuri-zuria egiten du. Beraien sasoian sagardo-sagar onenak "andueñi" eta Villa Franca ei ziren. Madaria gutxi zuten baita pikuak ere, gereziak ostera asko izaten zituzten. Frutei txertaketak (injertoak) egiten zitzaizkien, batu eta segidan jatea komeni zen.

44. Arropak garbitzen (BRT-005/036)

Astelehenetan arropak garbitzen zituzten errekan, bi harri zeuden, eta han jo eta jo garbitzen zituzten.

45. Lixiba egiten (BRT-005/037)

Lixiba hamabostean behin egiten zuten. Zelan egiten zuten azaltzen du. Andrazkoen lana zen hori.

46. Abarkak eta sokak zelan egin (BRT-005/038)

Abarkak ganaduaren larruaz egiten zituzten etxean, bere aitak egiten zituen. Sokak ere egiten zituen. Zelan egiten ziren azaltzen du.

47. Otzarak zelan egin (BRT-005/039)

Otzarak erosi egiten zituzten. Batzuek egiten zituzten baina oso gutxik. Zumitzarekin egiten zituzten. Zelan egin behar zen azaltzen du. Ez zen lan erreza.

48. Argi egiteko karburoa, petrolioa eta lasto azaoa (BRT-005/043)

Argindarra gerraostetik dute. Aurretik karburoagaz eta petrolioagaz konpontzen ziren. Lasto azaoa ere erabiltzen zuten. Lasto azaoagaz Amoroton gertatutako anekdota bat kontatzen du. Etxea erretzeko arriskua ere bazegoen; ezagutu izan ditu erretako baserriak.

49. Baserrien aseguruak (BRT-005/044)

Baserriek bazuten nolabaiteko asegurua. Urte bakoitzean Berriatuko bi gizon arduratzen ziren horretaz, etxea begiratu eta dena zelan zegoen begiratzen zuten, oniritzia emateko. Ganaduaren arabera ordaintzen zuten, urtean behin ordaintzen zen.

50. Eskolara gutxi (BRT-006/004)

Eskolara gutxi joan zen baserrian lan asko zegoelako. Umetatik hasten ziren baserriko lanetan. Eskola orain medikuaren kontsulta dagoen lekuan zegoen. Nesken eskola eta mutilena bananduta zegoen. 8-9 urtegaz hasten ziren eskolara.

51. Etxean urik ez (BRT-006/005)

Umetan baserrian lan asko egin behar ziren. Ez zuten urik etxean; garbitasunerako errekatik eta edateko iturritik ekartzen zuten. Beraien dutxa erreka zela dio, iluntzetan joaten ziren. Neguan sukaldean berotzen zuten errekako ura. Ile aoso gutxitan garbitzen zuten eta ile-apaindegira urtean behin joaten ziren.

52. Lixiba egiten (BRT-006/007)

Lixiba zelan egiten zen azaltzen du: tiñan edo baldan ur berotan egosita garbitzen zen.

53. Medikua (BRT-006/009)

Mediku jatorra zuten herrian, lekeitiarra. Baserririk baserri bide txarretatik ibiltzen zen, mediku fina ei zen. Urtean birritan ordaintzen zitzaion: Gabonetan eta San Juanetan. Baserriko jeneroa sasoian sasoikoa ere ematen zitzaion.

54. Abadeari eta medikuari berori (BRT-006/010)

Medikuari eta abadeari berorika egiten zitzaion, errespetua zor zitzaien. Abadearekin izan beharreko tratua dela-eta, bizitako estualdi bat kontatzen du.

55. Ondarroako plazara (BRT-006/013)

Etxean ganadua, txerriak eta oiloak zituzten. Ondarroako plazara joaten ziren esnea saltzera; etxera ere joaten ziren batzen. Ondarroako plaza ona zela dio, egunero egoten zen. Hasieran astoz eta gerora furgonetaz joaten ziren.

56. Haziak ereiten (BRT-006/020)

Letxuga eta porrua zelan ereiten den azaltzen du: lehenengo hazia erein behar da eta gero aldatu. Hazia lantzean behin Gernikan erosten zuten. Gernikarako autobusa egoten zen astelehenetan. Hazia ezin da leku heze batean gorde, ganbara leku ona da. Kipula ere porrua eta letxuga bezala ereiten da.

57. Patata ereiten (BRT-006/021)

Azenarioa bera ereiten da ez haziarekin. Patata-hazia Gasteiz aldetik ekartzen zuten; zelan ereiten den azaltzen du.

58. Arrautzak saltzeko baino ez (BRT-006/026)

Arrautzak etxerako baino saltzeko izaten zitutzen. Oiloak zarratuta egon behar ziren, kanpora joanez gero landareetan-eta kalteak egiten zituzten. Oiloari artoa eta garia ematen zieten ez baitzegoen pentsua non erosi. Oiloak berotasuna behar du arrautzak emateko.

59. Errotara (BRT-006/028)

Errota etxe atzean izan zuten, Boliñe, baina azken uholdeek hondatu egin zuten. Ezaguna zen errota eta errotaria ere balioduna zela dio, Maria Antonia. Errotaria irin apur batzegaz gelditzen zen ehotakoan, horrela ordaintzen zitzaion.

60. Etxea fronte erdian (BRT-008/003)

Gerran 10 eta 15 urte zituzten. 1936ko urritik 1937ko apirilera arte, frontea izan zuten etxe alboan. Erasoen erdi-erdian zegoen beraien etxea: alde batetik, gorriak; eta, bestetik, faxistak.

61. Ez biderik, ez argirik, ez urik.... (BRT-008/004)

Etxerako ez zuten biderik, gurdi-bidea baino ez. Ez zegoen ez biderik, ez telefonorik, ez urik, ezta argirik ere. Ura baldeetan ekartzen zuten.

62. Mugartegitarrak; maiorazgoa gizonezkoa (BRT-008/005)

Mugartegi abizena ez dakite noiztik datorren, etxe horretan beti bizi izan dira Mugartegi abizendunak azken 6 gizaldietan behintzat, beraiek dakitela. Maiorazgoa beti izan da gizonezkoa.

63. Hurbileko emaztea (BRT-008/007)

Ricardo 1927. urtean jaio zen. 21 urtera arte, Berriatuko beste etxe batera ezkondu arte, Ateun Bekon bizi izan zen. Sasoi hartan gaitza zen urruneko andrea topatzea, bertako erromeriara joaten baitziren.

64. Errepublika garaiko eskola (BRT-008/009)

Jose Mari errepublika garaian ibili zen eskolan, errepublikak iraun zituen 5 urteetan. Errepublika aurretik Espainiako bandera zuten eskolan eta gerora errepublikako bandera. "Catecismo" eta "Historia Sagrada" kendu zituzten ikasgaien artetik. Abadeak ematen zien dotrina.

65. Abadeari errespetua (BRT-008/010)

Abadeek gerra aurretik ez zuen gerora izango zuen boterea eta indarra. Abadeari txapela kenduta agurtu behar zitzaion. Abadeak eurak ere ez ziren pertsona arrunt bezala janzten, beraien soinekoa eta buruko koroa eramaten zuten. Abadeari eta medikuari "don" esaten zitzaion.

66. Ikasi gutxik egiten zuten, aukerarik ez (BRT-008/012)

Maisu-maistrak erdaldunak ziren. Bertoko jendeak ez zuen ikasteko aukera askorik, hori dela-eta, kanpotik etorritakoak izaten ziren. Bertokoak eskolatik irten eta beharrean hasten ziren, baserrian ez bada kanpoan, baina lanean. Markinako eskola laborala zabaldu zutenean hasi zen jendea tituluak izaten. Baserri askotan gutxi bidaltzen zituzten umeak eskolara; beraienean, eskolak zuen lehentasuna. Eskolatik etxera ordu erdiko bidea zuten.

67. Karburoa eta farola (BRT-008/013)

Argirik ez zutenez karburoa erabiltzen zuten; kortan, ostera, ezerk su ez hartzeko farola erabiltzen zen.

68. Maisu-maistrak auzoan bizi ziren (BRT-008/015)

Maisu-maistrak kanpotik zetozenez, auzoan bertan bizi ziren.

69. Jatorduetako errezoa (BRT-008/016)

Beste ezertan baino gehiago errezatzen ikasten zen lehen, jatorduetan ere beti errezatzen zen.

70. Mezara nahi eta nahi ez (BRT-008/017)

Lehen inor ez zela nekatzen dio, gaur egun ostera, erraz esaten da hori. Mezara ere oinez joaten ziren, goizeko zazpietakora. Eguraldi txarra egon arren eta ilunpetan joan behar izan arren nahitaezkoa zen. Mezara joaten ez zena seinalatua izaten zen.

71. Eraztuna zigor bezala (BRT-008/019)

Eskolan ez zieten euskaraz berbetan uzten, ezta errepublika sasoian ezta Franco garaian ere. Euskaraz egiten zuenari eraztun bat ematen zion

maistrak, eta eskurik esku aldatzen joaten zen. Jolas-orduan eraztuna zuenak ezin zuen irten. Eskolan dena ikasten zuten gaztelaniaz; beraz, zer edo zer ikasi zuten. Maistra euskalduna izan arren, alperrik, ezin zen egin.

72. Solfeo eta akademia beharrik ez (BRT-008/021)

Gaur egun soinua jotzen ikasteko solfeoa ikasten da. Lehen, ostera, soinu-jotzaileak lanean ikasten zuen, ganadua zaintzen-eta. Ogibide asko ikasteko, askotan norberak ordaindu behar zion ugazabari erakuts ziezaion.

73. Medikuak eta abadeak etxera (BRT-008/022)

Ricardok dio hobe dela ez bizitzea, antzina bezala bizi orduko. Lehen gaur egun baino bizi-iraupen laburragoa zegoen; hala ere, medikuarenera oso gutxitan joaten ziren. Askotan medikua bera joaten zen etxera, sarritan abadea bera ere gure Jauna emateko.

74. Erromeriak; neska-laguntzen (BRT-008/024)

Lehengo usadioa erromeriara joatea zen. Neskak dantzan hasten zirenean hurbiltzen ziren gizonezkoak eurengana, sarritan kalabazak jasotzen zituzten. Neskari etxera laguntzen zitzaion, neska-laguntzen; askok horrela aurkitzen zuten ezkongaia. Berriatuko, Oletako eta inguruko jaietako erromerietara joaten ziren sarri. Auzoko jaietan gonbidautzak egoten ziren, eta iluntzean erromeria.

75. Dantza egiteko gizonezkoek ordaindu behar (BRT-008/025)

Gizonekoek ordaindu egin behar izaten zuten Erromerian dantza egin ahal izateko. Ermita inguruetan edo herri txikietan bakarra egoten zen kobratzen; baina leku handiagoetan gehiago egoten ziren, eta ezin zen korro batetik bestera joan, berriro ordaindu behar zelako. Baltseoan zein soltean egiten zuten. Nahiz eta inor ez erakutsi trebeak ei ziren dantzan.

76. Neskatan (BRT-008/026)

Neskatan egitea norberaren abildadearen araberakoa zen. Neska berarekin behin eta berriro dantzan eginda, "neu etorko naz laguntza" esan eta neskaren erantzunaren arabera hasten zen erlazioa edo ez. Denbora luzez etxera lagunduta harremana sendotu eta gero ezkontzen ziren.

77. Musuak eta zirriak (BRT-008/027)

Musuak eta zirriak bekatu izan arren egiten zirela dio Jose Marik. Ricardok dio, musua kontu sakratua zela, zirriak errazago egiten zirela; ezkondu aurretik musu gutxi eman zituela uste du.

78. Konfesioak; penitentziak (BRT-008/028)

Neska-lagunarekin egindako zirriek eta emandako zirriek seigarren mandamendua urratzen zuten. Abadeek ea bakarrik ezer egiten zuten eta zenbat bider galdetzen zuten. Egi guztiak kontatzen zituzten, gaur egun izanez gero, Ricardok dio ez zutela berdin egingo. Zein penitentzi jartzen zizkieten aipatzen dituzte. Egun zehatz batzuetan konfesatzen ziren, Pazkotan eta Arrosarioko Ama Birjinaren egunean, adibidez. Abade ezezagunarekin gusturago konfesatzen ziren; askotan fraidea egoten zen.

79. Ezkondu osteko konfesioak (BRT-008/029)

Ezkondu ostean, ea umea izateko edo ez izaten zituzten harremanak galdetzen zien abadeak; umerik ez izateko ezer egitea bekatua zen.

80. Frontoia bedeinkatzeari ukatu (BRT-008/032)

Berriatuan abade asko ezagutu dituzte: don Txirriskilo, don Pelix bikarioa, don Matias, don Juan... Don Pelix bikarioa frontoi berria bedeinkatzera ukatu zen, dantza-lekua ez zuelako bedeinkatuko.

81. Errepublikan gotzainari ezetza (BRT-008/033)

Errepublika sasoian, gotzaina elizara etorri behar zela-eta, alkatea kexatu egin zen eta ezin izan zioten burdinazko gurutzea zegoen tokia egin harrera. Errepublikan elizak ez zuen indarrik.

82. Mezak, sermoiak eta janzkera (BRT-008/034)

Abadea aldarera begira zegoela eta latinez ematen zuen meza. Natibitate egunean hiru meza egoten ziren. Sermoiak pulpitutik botatzen zituzten, nahiko gogorrak izaten ziren. Ejerzizioetan askotan kanpoko abaderen bat ekartzen zuten. Sermoia, ostera, euskaraz izaten zen. Andrazkoak mantilarekin joan behar izaten ziren elizara arrosarioa eskuetan zutela, eta ez ziren gizonezkoen alderdi berean jesartzen. Iluntzeko mezarako, oinetako dotoreagoak janzten ziren eta bide erdian aldatzen zituzten.

83. Dirua elizara botatzeko baino ez (BRT-008/035)

Gosaria mezatik bueltan etorritakoan egiten zen etxean, sekula ere ez kanpoan. Jendea diru barik irteten zen kalera, neskak batez ere. Baina elizara bota beharreko dirua bai eramaten zuten aldean, besterik ez, baina hori falta barik.

84. Errazionamendua, kupoa entregatzea, errotak itxita, estraperloa (BRT-008/039)

Ez zuten goserik pasatu gerra sasoian. Gerraostean hasi zen errazionamendua, baina beraiek ez zuten askoren beharrik baserri handi zen beraiena-eta. Baserri bakoitzak kupoa entregatu behar izaten zuen: artoa, indaba... Errotara gauez joan behar izaten zen galarazita zegoelako ehotzea. Dendari batzuk estraperloan aritzen ziren. Irina ere estraperloan egoten zen, baina orduan ere baserritarrek ez zuten beharrik.

85. Berriatuko eskola (BRT-010/003)

Bera Berriatuko eskolara joan zen, beste auzo batzuetakoek barriadako eskola izaten zuten. Eskola garaiko garaiak gogoratzen ditu. Gaztelaniaz ikasi zuten.

86. Maisua, "Antonito" liburua, "pizarriña"... (BRT-010/005)

Mutilek maisua zuten eta neskek maistra. Berrituan bertan bizi ziren maisu-maistren etxean, baina ez ziren bertakoak. Ordu erdiko bidea zuen eskolara. Eskola ez zen bere gustukoa. "Antonito" irakurketa-liburua erabiltzen zuten. Matematiketarako arbela eta "pizarriña" erabiltzen zuten. Maisu gogorra zuten; erregelarekin buruan jotzen zieten eta belauniko egotera zigortu.

87. Dotrina; Pazkozkoa (BRT-010/006)

Dotrina eskolan eta elizan izaten zuten parrokoarekin. Dotrina garrantzi handikoa zen; eskola ez bezala neskekin egoten ziren. Garizuman Pazkozkoa egin behar izaten zuten, abadearen galderak ondo erantzun zituenari txartel berdea ematen zioten. 14 urtera arte, eskola bukatu arte, joan zen dotrinara. Dotrina euskaraz izaten zen. Meza latinez izaten zen nahiz eta ez ulertu ezer. Dotrina lehenengo kantuan ikasten zuten.

88. Dotrinara eskolara baino gusturago (BRT-010/007)

Berriatuko abadeak ez ziren gogorrak. Dotrinara eskolara baino gusturago joaten zen Miguel. Mendi aldean bizi zirenez, mezarako ostera bakarrik jai-egunez, domekaz, egiten zuten.

89. Bezperak (BRT-010/008)

Jaunartzeak urtean hiru bider izaten ziren. Garizuma bezperetan dotrinara joan behar izaten ziren eta gero mezara. Elizan abadeak gradetan zeudenei galderak egiten zizkieten, eta denen aurrean erantzun behar izaten zen.

90. Garizuman (BRT-010/011)

Garizuman, bezperak, arrosarioa eta estazioak egoten ziren. Garizumako domeka arratsaldez derrigorrez joan behar izaten zen mezara. Plazan ez zen erromeriarik egoten eta soinurik ere ezin zen jo.

91. Eguen eta Bariku Santu Egunak (BRT-010/012)

Bariku eta Eguen Santu Egunez prozesioak egiten ziren elizatik Santo Kristora. Gizon boluntarioek parte hartzen zuten eta herritar guztiak joaten ziren.

92. Letaniak (BRT-010/013)

San Marcosetan eta Asentzio bezperan letaniak egoten ziren. Astegunez izaten zirenez, herritar guztiak joan beharrean, nahikoa zen etxe bakoitzetik pare bat-edo joatea.

93. Norbait hildakoan egin beharrekoak (BRT-010/015)

Norbait hildakoan zer egiten zen kontatzen du. Lehenego, hil-kanpaia jotzen zen (hildakoa andrazkoa, gizonezkoa edo umea zen desberdintzen zen). Hil-kanpaiak entzun ostean, hildakoaren alde Pater Noster bat errezatzen zen. Etxean gaubela egiten zuten. Abadea etxera joaten zen eta hileta-elizkizunean abade bat baino gehiago izaten zen. Lehenengo, hildakoa kanposantura eramaten zuten lur ematera eta gero ospatzen zen elizkizuna.

94. Kategoria desberdinetako hileta-elizkizunak (BRT-010/016)

Hileta-elizkizunak kategoria desberdinetakoak egoten ziren: primerakoa, segundakoa eta terzerakoa. Baxuenekoan, terzerakoan, errentariak sartzen ziren.

95. Lutoa (BRT-010/017)

Luto- eta medioluto-jantzia. Gurasoenak bi urteko iraupena izaten zuen, bukaera aldera janzten zen medio-lutoa. Erromeriara ere luzaroan joan barik egon behar izaten zen.

96. Sepultura (BRT-010/018)

Sepultura zelan egiten zen azaltzen du. Sepulturarako opilak sakristauak jartzen zituen.

97. Gari-soloak, korta, autoak... bedeinkatu (BRT-010/019)

Gari-soloak eta korta urten behin bedeinkatzen ziren. Bedeinkazioaren ordez, oilaskoa-edo ematen zitzaion abadeari. San Kristobaletan ere gari kopuru bat ematen zitzaion.

98. Gari-lanak (BRT-010/020)

Gari-lanak: Karmen inguruan igitaiarekin ebaki behar izaten zen txorta txikiak egiteko; gero, metak egiten ziren; 3-4 astetara, garia jo eta garbitu; azkenik, errotara eramaten zen edo etxean gordetzen zen. Garia eskuz jotzen zen, baina gerora, makinak heldu zirenean, etxerik etxe ibiltzen ziren garia jotzeko makinak.

99. Errotara (BRT-010/021)

Okolako errotara joaten ziren garia eta artoa ehotzera. Batzuk errotan bertan egiten zuten ogia, beste batzuk etxean bertan. Gerraostean estraperloa egon zen, errota asko zarratuta egon ziren. Gobernuak etxe bakoitzari entregatzeko kupoa jarri zion. Ogi gutxi egon zen, errazionamenduan.

100. Estraperloa; errazionamendua (BRT-010/022)

Estraperloan denetarik egoten zen: irina, azukrea, kafea, olioa... Errazionamenduko errazioa txikia zen. Aguazila egoten zen estraperloa kontrolatzen.

101. Gose sasoia (BRT-010/023)

1942-43 inguruan gosea pasatu zuten, baserriko jeneroa ere kontrolatzen zieten-eta. Miguelek txarren ogi eskasiarekin pasatu zuen. Txahala hilez gero ere, tratulariaren bitartez kontrolatzen zieten eta entregatu beharra izaten zen. Hala ere, baserritarrek txerriren bat-edo beti izaten zuten gordeta beraientzat. Kaletarrak baserrietara joaten ziren jateko eske.

102. Indaba: eguneroko jatekoa (BRT-010/024)

Indaba ia egunero jaten zen lehen eta domeketan garbantzua. Oso arrain gutxi jaten zuten, jatekotan antxoa eta atuna. Gerra sasoian trukea egiten zen, ohikoa zen.

103. Errepublika vs gerraostea (BRT-010/026)

Gerra aurretik ez zuten goserik izan; gerraostean, aldiz, asko. Apurka-apurka lehengo antzeko egoera bueltatu zen.

104. Primo de Rivera eta errepublika (BRT-010/027)

Errepublikako bizimodua azken urteetan okertzen hasi zen. Primo de Riveraren diktadura ez zuten igarri, eskolan ere ez zuten inongo sinbologiarik. Errepublikaren etorrera, ostera, bai igarri zen.

105. Gerran alde batetik bestera (BRT-010/032)

Gerra hasiera kontatzen du. Donostiatik hasi ziren sartzen Ondarroara urriaren 4an, eta 5ean Berriatura sartu ziren. Zazpi hilabetetara aske utzi zute herria. Urtarrilaren erdialdean erreketeak agertu ziren eta etxetik alde egin behar izan zuten Pertikara, han baitzegoen komandantzia. Handik Olabe baserrira joan ziren. Olabetik ere ebakuatu behar izan zuten eta lehengusu baten etxera joan ziren Olatzera (Mutriku). Olatzen egon zen handik soldadu joan arte.

106. Nazionalekin soldadu joan behar (BRT-010/033)

Soldadu joateko deia Olatzen (Mutriku) hartu zuen; hori dela-eta, gipuzkoarrekin joan behar izan zuen Jakara bando nazionalarekin. Lehenengo, kuartelean egon zen; eta, gero, frontean.

107. Jakako frontean I (BRT-010/034)

Jakan soldadu zegoela, hasieran nahiko lasai egon ziren. Baina frontea harantz joan zenean, estutu egin ziren. Hilabete eta erdian ez zuten inongo erasorik izan. Lehenengo erasoan, bi egun egon ziren postutik mugitu barik; arrautza bat eta txorizo bat baino ez zituela jan gogoratzen du.

108. Jakako frontean II (BRT-010/035)

Frontean bere inguruan zeuden asko preso hartu zituzten, beste batzuk hil egin ziren eta hainbat uholdeetako urak eraman zituen. Negu guztia, urritik martxora arte, leku berean pasatu zuten eta baja asko izan zituzten. Miguel "Regimiento 19, segunda compañia, quinto batallón"en egon zen.

109. Negu hotza frontean (BRT-010/036)

Frontean traje militarra erabiltzen zuten. Euria zein txingorra eginez gero, ez zuten aldatzeko arroparik. Trintxeran gerritik behera ura izaten zuten. Jatekoa baino nahiago izaten zituzten erremintak, horrela, zuloa egin ahal izateko.

110. Anaia "Abuelo"k hil zuen (BRT-010/037)

Martxoan, Huescako frontetik Bartzelona aldera joan ziren. Miguel maiatzean etxera etorri zen; izan ere, gerran zeuden 3 anaiatatik bat libratu zitekeen. Bere anaia bat "Abuelo" izeneko hegazkinak hil zuen, etxe atzean meta egiten zeudela.

111. Hamazazpi anai-arreba (BRT-035/002)

Milloi auzokoa eta hamazazpi anai-arrebako familiako kidea. Aitak zerrenda pasatzen zuen gauetan. Inoiz ez zuten goserik pasatu.

112. Milloiko auzo-eskolatik Erromara ikastera (BRT-035/005)

Umetan, Milloiko auzo-eskolan ikasi zuen. Herriko abadearen bitartez, Derioko seminarioan jarraitu zituen ikasketak. Erroman irakasle-ikasketak egin zituen.

113. Eibarko ikastolaren sorrerako irakaslea (BRT-035/006)

Eibarko ikastolan hasi zen lanean Serafin Basauri, Margarita Murgizu, Juan San Martin eta Imanol Laspiurrekin. Sei urtez lan egin zuen Eibarren.

114. Eibarko ikastola: hasierako kokapenak (BRT-035/007)

Hasierako Eibarko ikastola herri guztitik sakabanatuta zegoen: Zezenbiden, Urkin, elizako lokaletan, karmeldarretan... Ikasle kopurua oso azkar handitu zenez, ikastola handi bat eraikitzeko beharra sortu zen. Bilerak.

115. Eibarko ikastola: Iturbururen kokapena (BRT-035/008)

Eibarko ikastola berria mendian eraikitzeko erabakiaren zergatia. Juan San Martinentzat urrutiegi zegoen. Arkitektoak, ikastolako diseinuan irakasleen beharrak kontuan hartu zituen. Materialaren bilketa.

116. Eibarko ikastolako hasierako irakasleak (BRT-035/010)

1972an hasi zen Eibarko ikastolan lanean. Zezenbiden ibilitako irakasleak: Maria Jesus Garetxana, Margarita Murgizu, Juan Mari Perez, Kontxi Mandiola, Libe Sarasua, Jon Elkoro, Imanol (Laspiur)...

117. Haurrentzat euskarazko ipuinak eta liburuxkak sortzen I (BRT-035/012)

Lanetik kanpo, Angelek etxean ikasgelan irakurtzeko ipuinak idazten zituen. "Ipuinak eta egiak" deitzen ziren liburuxkak. Jose Luis Murgoitioren marrazkiak.

118. Haurrentzat euskarazko ipuinak eta liburuxkak sortzen II (BRT-035/013)

Haurrentzat ez zegoen material egokirik euskaraz. Angelek ipuinak sortu eta liburuxketan bildu zituen. Izenburuak. Berak eta Jose Mari Sagarnak sortutako bertso bat abeste du. Margarita Murgizu.

119. Falangeko udalekuak (BRT-035/018)

Milioiko eskolan gaztelaniaz ikasi zuen eta irakasle falangista zen. Falangeko udalekuak. Seminarioan ere gaztelaniaz egiten zuten eta gero jakin zuten abade asko euskaldunak zirela.

120. Seminarioan euskararekin lehen kontaktu akademikoa (BRT-035/019)

Seminarioan, euskararen presentzia handiagotzen hasi zen 17-18 urte zituenean. Karmelo Etxenagusiak sartu zuen Angel euskal literaturaren barruan.

121. Herri Gaztedi-ko kidea (BRT-035/024)

Seminarioan alfabetatu zen euskaraz, Karmelo Etxenagusiarekin hasieran eta beste batzuekin geroago. Euskal gramatikako liburuak bazeuden baina autodidaktak izan ziren. Herri Gaztedi-ko kidea. Euskalkitik euskara baturako pausoa erreza egin zitzaion.

122. Ikastolako ikasgaiak (BRT-035/027)

Hasierako Eibarko ikastolako ikasgaiak: euskal kultura, historia, gramatika, geografia, matematika, frantsesa... Euskal errodun ikasketak bermatzea zen helburu nagusia.

123. Elgoibarko ikastolan lanean (BRT-035/030)

1978an hasi zen Elgoibarko ikastolan lanean. Letamendiaren testuliburua erabiltzen zuten. Andres (Alberdik) eta Anjelek, erdarakaden liburu bat argitaratu zuten.

124. Bertsolaritzak, hizkuntza, musika eta harremanak batzen ditu (BRT-035/033)

Elgoibarren, auzoetan zegoen bertsolaritzarako zaletasun gehiago kalean baino. Bertsolaritzak, hizkuntza, musika eta harremanak batzen ditu. Berriatuan eta herri txikietan, bertsozaletasun handiagoa egon da beti.

125. `Euskara eta Literatura´ ikasgairako testu-liburuak sortzen (BRT-035/035)

1982an Elgoibarko Institutuan lanean hasi zen. Garai hartan euskal ereduak bultzatzeko hiru institutu izendatu ziren (Elgoibar, Hondarribia eta Hernani). Elgoibarko institutuko Euskara Mintegiko kideek `Euskara eta Literatura´ ikasgairako lau testuliburu prestatu zituzten 1985etik 1990era bitartean, institutuetan erabiltzeko, eta Elkar argitaletxeak kaleratu zituen. Beste ikasgai batzuetarako (historia, matematikak) euskarazko testuliburuak sortu ziren. Saioka.

126. Ikastolen publifikazioa (BRT-035/036)

Ikastolen publifikazioan, Elgoibarko Ikastolak kooperatiba izaten jarraitzea erabaki zuen. Kilometroak Elgoibarren.

127. Barren aldizkariko hizkuntza-arduraduna (BRT-035/037)

Barren aldizkariko hizkuntza-arduraduna izan zen. Batzuek oso zorrotza zela esaten zuten.

128. Familia bertsozalea (BRT-035/038)

Ipar Euskal Herrira ihes egindako anai batek eta soldaduskan zegoen beste batek, etxera eskutitzak bertsoz idazten zituzten. Bertso batzuk ekartzen ditu gogora. Guraso bertsozaleak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com